

PSIKOLOGIA-PEDAGOGIA

Ainhoa MUNARRIZ VAZQUEZ

HEZKUNTZA BERRIKUNTZA

TFG 2013-2014

upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Gradu Bukaerako Lana

HEZKUNTZA BERRIKUNTZA

Ainhoa MUNARRIZ VAZQUEZ

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

Ikaslea / Estudiante

Ainhoa MUNARRIZ VAZQUEZ

Izenburua / Título

HEZKUNTZA BERRIKUNTZA

Gradu / Grado

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales

Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Lucia PELLEJERO GOÑI

Saila / Departamento

Psikologia eta Pedagogia Departamentua

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2013/2014

Seihilekoa / Semestre

Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan

Laburpena

Hezkuntza Berrikuntzak lanaren gai zentrala izanik, haien inguruan existitzen den teoria aztertzen da; definizioak, ezaugarriak, motak, parte-hartzaileak eta jarraitu beharreko prozesua. Prozesu amaigabe eta ireki honen azken urratsa hausnarketa izan behar dela azpimarratuz. Honela, intentzio onak baina haratago doan prozesu baten aurrean gaude; gutxienez teorikoki. Berrikuntzak hobekuntzak sortuz gero, gainontzeko komunitate kideei transmitituko dira, horregatik, modu “txikian” has daitezke eta parte-hartzaile ugariekin amaitu. Guzti honetarako, Hezkuntza Sisteman komentatu beharreko zenbait oztopo eta zailtasun existitzen dira. Geroago egoera administratiboa aztertzeko unea da, Gobernutik eskainitako diru laguntza eta sarien inguruko datu bilketa eginez. Jarraian, IKTetan sakontze lana egingo dugu, izan ere, horiek delako indar gehienarekin datorren gaia. Azkenik, Nafarroako egoera aztertuko dugu, 2013-2014.kurtsorako berrikuntza proposamenen inguruko datuak bilduz. Guzti honen inguruko hausnarketa batekin amaituz, noski.

Hitz gakoak: Hezkuntza berrikuntza; hezkuntza aldaketa; hezkuntza hobekuntza; berrikuntza proiektuak eta hezkuntza erreforma.

Resumen

Siendo las innovaciones educativas el tema central del trabajo, se analiza la teoría existente; definiciones, características, tipos, participantes y el proceso a seguir. Incidiendo continuamente en que la última fase del proceso infinito y abierto tiene que ser la reflexión. Así, estamos ante un proceso que va más allá de las buenas intenciones; por lo menos teóricamente. En caso de que las innovaciones causen mejoras, serán transmitidas al resto de compañeros de comunidad, por ello, pueden comenzar siendo “pequeñas” y acabar con muchos participantes. Para esto existen dificultades y trabas en el Sistema Educativo que caben comentar. Después es ocasión de analizar la situación administrativa, recogiendo datos sobre ayudas económicas y premios que se ofrecen desde el Gobierno. Seguidamente profundizaremos en las TIC, ya que es la temática que viene con más fuerza. Finalmente, analizamos la situación en Navarra, recogiendo datos sobre diferentes propuestas de innovación para

el curso 2013-2014. Terminando, por supuesto, reflexionando sobre todo lo anterior.

Palabras clave: Innovación educativa, cambio educativo, mejora educativa, proyectos de innovación, reforma educativa.

Abstract

Being educational innovations the focus of the work the existed theory about it is going to be analyzed; definitions, characteristics, types, participants and the process to follow. In order to achieve this, the last step of this open and never ending process must be reflection. We are, therefore, speaking of a process that goes further than mere good intentions, at least theoretically. If goals are reached they must be communicated to the rest of the colleagues in the community so they can implement them as well; so, Innovations may begin being “small” and end up with many participants. For this there are difficulties and obstacles in the Education System that fit comment. Then, we have the occasion analyze the administrative situation, collecting datum about financial aids and awards from the Government. There are diverse innovations but the TIC deserves a special mention, as it is the theme that comes with more force. Finally, we will focus in the situation in Navarre, analyzing the various proposals for innovation for the academic year 2013-2014. Ending, of course, reflecting on all the above.

Keywords: Educational innovations, educational change, educational improvement, innovation projects, educational reform.

AURKBIDEA

Aurrekariak	1
Sarrera	2
1. Atal teorikoa	4
1.1. Hezkuntza berrikuntza kontzeptua	4
1.1.1. Definizioak	4
1.1.2. Berrikuntza, aldaketa eta erreforma	5
1.1.2.1. Berrikuntza eta erreforma	6
1.1.2.2. Berrikuntza eta aldaketa	8
1.1.3. Ezaugarri orokorrak	10
1.1.4. Hezkuntza berrikuntza motak	16
1.1.5. Dimentsioak, testuinguruak eta elementu parte-hartzaileak	22
1.1.6. Berrikuntzaren prozesua	24
1.1.7. Berrikuntzarako oztopoak	25
1.1.8. Egoera hobetzeko proposamenak	31
1.2. Berrikuntzen egoera	33
1.2.1. Europa mailan	33
1.2.2. Estatu mailako administrazio mailan	35
1.2.2.1. Egindako deialdiak	35
1.2.2.2. Deialdi motak	37
1.2.2.3. Jasotzaileak	39
1.2.2.4. Deialdien gaiak	40
1.2.2.5. Baliabide ekonomikoak	46
1.2.2.6. Jarraipen eta ebaluazioa	47
1.2.3. Nafarroako administrazio mailan	48
1.2.3.1. Egindako deialdiak	48
1.2.3.2. Deialdien jasotzaileak eta gaiak	49
1.2.3.3. Baliabide ekonomikoak	50
1.3. Berrikuntza aipagarriak	50
1.3.1. Gaur egun berrikuntza bezala hartutako gai nagusiak	50
1.3.2. IKT-ak berrikuntza aipagarritzat	52
1.3.2.1. Kontzeptua	52
1.3.2.2. Datu orokorrak	54
1.3.2.3. Garrantzia hezkuntza berrikuntza bezala	56
1.3.2.4. IKT-en beste aurpegia	59
1.3.2.5. Irakasleak eta IKT-ak	63
2. Atal praktikoa	70
2.1. Helburuak	70
2.2. Metodologia	70
2.3. Nafarroako egoeraren analisia	71
2.3.1. Berrikuntza proiektuak	71
2.3.2. Berrikuntza sareak	77
2.3.2.1. Eskola osasungarrien sarea	78
2.3.2.2. Elkartasunaren aldeko sarea	83
2.3.2.3. Eskola iraunkorren sarea	86
2.3.2.4. Zientzia eta teknologian berrikuntzak egiteko sarea	92
2.3.3. Kalitate sareak	93

2.3.4. Hezkuntza berrikuntzaren beste arduradunak	98
Ondorioak	101
Bibliografia	105
Eranskinak	107
Eranskinak 1	109
Eranskinak 2	125
Eranskinak 3	127
Eranskinak 4	131
Eranskinak 5	133
Eranskinak 6	143

AURREKARIAK

Ezinezkoa da gaiarekin hasia lan honi hasiera emateko zergatiak azaldu gabe. Duela zenbait urte jada amaitu nuela eskola eta derrigorrezko hezkuntza, modu honetan, urte hauetan zehar nola aldatu den Hezkuntza Sistema ezagutu nahi nuen. Irakasle bezala lan egiteko ondo kontrolatu beharreko arloa delako, ezin naizelako duela hamar urteko bizipen baten arabera lanean aritu.

Praktiketan Platonen leizetik ateratzeko ordua iritsia zen; benetako errealitatea testu liburu edo artikulu batetik kanpo ikusteko garaia. Baina espero ez nuena gertatu zen; errealitatearekin aurrez-aurre talka egin nuen osotasunez. Praktiken hasierako egunak zailak eta gogorrak izan ziren niretzat; Unibertsitatean ikasitako guztiaren ondorioz zerbait desberdina espero nuen, berritzaileagoa zen zerbait.

Errealitatea ez zen “nire garaian” zegoenarekin konparatuz oso desberdina eta horrek larritu egin ninduen. Dena lehen bezala jarraitzen du? Ez dira ahuleziak gairitu? Metodologia berarekin jarraitzen dute lanean? Irakaslea hezkuntzaren zentroa izaten jarraitzen du benetan? E.a.

Hasieran, blokeaturik gelditu nintzen, baina hausnarketa egiteko gai izan nintzenean testuinguru oso murriztaren ideia neukala soilik ikusi nuen; bi hilabete gela beraren barnean. Honela, ikuspegi hori zabaltzearen beharra somatzen nuen.

Modu honetan, lan honen gaia aukeratzeko orduan bi aukera nagusi nituen:

- Nire gaitasunak kontuan harturik aukeratu; honela nire indar-gune eta trebetasunak erakusteko aukera izanen nuke.
- Nire hutsuneak eta beharrak oinarri hartuta aukeratu; horiek betetzeko helburuarekin.

Orain arte azaldutakoaren arabera ondoriozta daitekeen modura, bigarren aukera hartu nuen. Honela, nire ezagutzan topatutako hutsune bat betetzeko helburuarekin eta gaiaren inguruan ikasteko nahiarekin aurrera eramandako lana dugu hau.

Aipagarria da ere garrantzitsua eta baliagarria izan daitekeela, aldaketa horiek datozen urteetan hartu beharreko norabidea aurreikusten jakiteko.

Honela, zehazki hitz egiteko, lan honen helburuak honakoak dira:

- Eskolako ikasketak amaitu nituenetik Hezkuntza Sistemaren aldaketak ezagutu eta haien inguruan hausnartu.
- Nire etorkizuneko lanbideari begira berrikuntza egokiak proposatu ahal izateko ezagutza bereganatu.
- Praktiketara lortutako ideia egiaztatu edota ezabatu. Hau da, “Dena lehen bezala jarraitzen du? Ez dira ahuleziak gainditu? Metodologia berarekin jarraitzen dute lanean? Irakaslea hezkuntzaren zentroa izaten jarraitzen du benetan?” bezalako galderak erantzun.
- Nafarroan zein berrikuntza gaiak bultzatzen ari diren Gobernuaren eskutik ezagutu eta aztertu.
- Nafarroan zein berrikuntza gaietan interesaturik dauden eskola mota desberdinak ezagutu eta aztertu.

Ondorioz, batetik, gaur egungo Hezkuntza Sistemaren errealitatea hobe ezagutzeko nahiarekin eta bestetik, irakasle bezala lan egiterakoan oinarri eta ezagutza bat izanik, berrikuntzak eta proposamen berriak kritikoki egin ahal izateko xedearekin lanean aritu naiz. Horretarako jarraian azaldutako guztiaren inguruan lanean arituz.

SARRERA

Hezkuntza Sistema etengabeko aldaketan egon behar du gizarte dinamikoaren beharretara egokitzeko. Aldaketa kualitatibo esanguratsuak lortzeko tresna bezala berrikuntzak topatzen ditugu. Hezkuntza arloan egindako berrikuntzak lanaren gai nagusia izanik, hasiera emateko, hezkuntza berrikuntza kontzeptu zentralaren inguruan dagoen ezagutza teorikoaren inguruan aritzea ezinbestekoa da.

Horretarako definizio desberdinak aztertuko ditugu batetik, eta horien inguruko ezaugarri nagusiak zehaztu bestetik. Gainera, ulermen sakonagoa lortzeko, aldaketa eta erreforma kontzeptuekin kontraste edo alderapena egingo dugu

ostean. Ondorioz, aurretik esan bezala, lanaren lehenengo atalean hori topatuko dugu; berrikuntzen gaiaren inguruan aritu ahal izateko ezagutza teorikoa, hala nola, definizioak, ezaugarriak, motak eta hauetan parte hartzen duten elementuak eta jarraitu beharreko prozesua. Guzti honek modu kontzientean egindako lan izugarria dakar berarekin; planifikazio sakona eta zehatza; hobetzeko helburua alde batean utzi gabe. Honetarako, prozesu amaigabe eta irekiaren azken urratsa hausnarketa izango da. Honela, intentzio onak baino haratago doan prozesua dugu hau, modu teorikoan gutxienez.

Aurreko guztia borobiltzeko berrikuntzak aurrera eramateko oztopoak eta zailtasunak aztertzeke unea ere izango dugu.

Jarraian, berrikuntzen egoera administratiboaren inguruko datu bilketa egitea ezinbestekoa da, Gobernuaren aldeko laguntzak nolakoak diren ikusteko eta Estatuaren berrikuntzekiko jarrera orokorra aztertu ahal izateko. Hau da, Europa, Espainia eta Nafarroako Administrazioek zer eskaintzen duten berrikuntzen gaiari zuzenduta ikusiko dugu, baita zein deialdi egiten dituzten berrikuntzak bultzatzeko ere, eta ondoren deialdi horietarako eskainitako diru laguntzak eta emaitzak. Honela, berrikuntzen aurrean azken urteetako jarrerak azaldu eta aztertuko ditugu nolabait.

Geroago azken urteetan berrikuntza moduan hartutako gai nagusien inguruko errebasoa egingen dugu. Berrikuntza horiek anitzak dira, baina IKT-ei aipamen berezia egitea ezinbestekoa da, hauek baitira indar gehienarekin datozenak. Honela, hauek berrikuntza bezala duten garrantzia, baina baita ahuleziak edo arriskuak ere aztertzea beharrezkoa da.

Egoera teorikoa zein den ezagutu ondoren, atal praktikoari hasiera emango diogu. Ezagutza teorikoa izanik, Nafarroako Komunitate Erkidegoaren egoera errealak ezagutzeko unea da. Horretarako, Nafarroako Hezkuntza Departamentuari aurkezten zaizkion proiektuen eta orokorrean edozein zentro edo elkarte egindako edozein jardura berritzailearen inguruko informazio bilketa aurrera eramango da. Horrela, komunitatean dagoen errealitatean egoera zein den aurkezteko gai izango gara nolabait.

Guzti honen ondoren, egindako lanaren inguruko hausnarketa sakona egin eta gero lortutako zenbait ondorio bilduko dira amaitzeko eta lana borobiltzeko.

1. ATAL TEORIKOA

1.1. Hezkuntza berrikuntza kontzeptua

1.1.1. Definizioak

Berrikuntza hitza (innovacion) *innovatio* hitz latindarretik dator. Bere etimoa *novus* hitza da eta kanpo semantiko zabala osatzen du; *novo*, *novius*, *renovo*, *renovatio*, *renovator*, *innovo* eta *innovatio*. RAEk (2001) dioenaren arabera, “in-“ aurrizkiak barne edo barruan esan nahi du, hortaz, barneratzea hitzarekin harreman du genezake. Honela, “in-“ = barneratu, “-nova-“ -= berria, kanpotik datorren zerbait barneratzea dela esan daiteke. Bestetik “-tio“ (“-cion“) atzizkia daukagu, honek aurreko esanahiari prozesuaren kutsua ematen dio. (Imbernón, F. 1992).

Autoreek definizioak ematen dituzte modu ezberdinetan; bakoitzak bere ikuspuntuaren arabera. Imbernón, F-ren ustez (1996: 64):

“la innovación educativa es la actitud y el proceso de indagación de nuevas ideas, propuestas y aportaciones, efectuadas de manera colectiva, para la solución de situaciones problemáticas de la práctica, lo que comportará un cambio en los contextos y en la práctica institucional de la educación”.

Pascual, R-k (1998) dioenaren arabera Escudero, J. M-ren definizioa honakoa da (1988: 86):

“innovación educativa significa una batalla a la realidad tal cual es, a lo mecánico, rutinario y usual, a la fuerza de los hechos y al peso de la inercia. Supone, pues, una apuesta por lo colectivamente construido como deseable, por la imaginación creadora, por la transformación de lo existente. Reclama, en suma, la apertura de una rendija utópica en el seno de un sistema que, como el educativo, disfruta de un exceso de tradición, perpetuación y conservación del pasado. (...) innovación equivale, ha de equivaler, a un determinado clima en todo el sistema educativo que, desde la Administración a los profesores y alumnos, propicie la disposición a indagar, descubrir, reflexionar, criticar... cambiar”.

Gainera, honakoak agertzen dira ere:

“Serie de mecanismos y procesos más o menos deliberados por medio de los cuales se intenta introducir y promocionar ciertos cambios en las prácticas educativas vigentes” (González, M. T. eta Escudero, J. M. 1987: 16)

“Intento de ruptura del equilibrio –dado el funcionamiento rutinario- del sistema educativo, que puede ser por un ajuste cuando no se altera la estrategia básica y una transformación cuando sí lo hace”. (Aguerrondo, I. 1995: 20)

Definizio desberdina eman dezakegu ikuspuntua eta interesen arabera, honela, autore eta korrante ideologikoa kontuan harturik, ezberdintasunak agertzen dira. Izan ere gai konplexua eta zabala dugu aurrean, elementu anitz barne dituen eta segun eta zein elementuei ematen diegun garrantzia definizio bat edo beste lortuko dugu.

1.1.2. Berrikuntza, aldaketa eta erreforma

Orain arte ikusitakoa hobe ulertzeko eta zehaztasunez aritzeko, ezinbestekoa da zenbait kontzeptu argitzea. Hala nola, aldaketa, berrikuntza eta erreforma. Honetarako, lehenik eta behin bi plano nagusi daudela azaldu beharra dago: intentzioena batetik eta errealitatearena bestetik.

Intentzioak etorkizunerako plan konplexuak izan daitezke (adibidez, Hezkuntza Sistema osoari eragiten diotenak), baina baita oso sinpleak ere (irakasle batek bere gelan bizikidetzak hobetu nahia). Errealitateek intentzio horien ondorioz dauzkagun lorpenei egiten diete erreferentzia ordea. Argi izan behar dugu, intentzioak ez direla beti errealitate bihurtzen. Bai gaizki planteatuta daudelako, bai beharrezkoak ziren baliabideak ez zeudelako, edota denbora falta izan delako besteen artean. Honela, aldaketa sortu nahi duen edozerk ez duela zergatik aldaketa sortu behar ulertu behar dugu.

Intentzioen planoan, berrikuntza eta erreforma izango genituzke. Bi hauek aldaketa bat sortzeko “proiektuak” dira; intentzioak edo nahiak. Hortaz, eskemaren kontrako aldean ordea, aldaketa horiek bete diren ala ez eta nola bete diren aztertzen duten kontzeptuak dauzkagu: hobekuntza eta arrakasta.

Taula 1. Intentzioak eta errealitateak

INTENTZIOAK	ERREALITATEAK	
ERREFORMAK	A L D A K E T A	ARRAKASTA
BERRIKUNTZAK		HOBEKUNTZA

*Casanova, M. A-ren (2006) informazioan oinarriturik nik egina

1.1.2.1. *Berrikuntza eta erreforma*

Zerbait erreformatzea berriro egitea da. Hobetzeko edota zuzentzeko helburuarekin. Goitik beherako aldaketa saiakuntzak dira, hau da, top-down edota bertikalak direnak (Guarro, A. 2005), kanpotik barrurako bidean egiten direnak, aurre-idatziak daudenak, inposatzen direnak, zabalak direnak... Honela, curriculumak, etapak, mailak, ikasgaiak, irakasleen egoera, eskola motak, irakasle izateko ezinbestekoak diren titulazioak e.a. aldatzen dituztenak dira.

Beren helburua “barrukoa” edota “behekoa” aldatzea da; beti ere, esan bezala, kanpotik edo goitik. Ondorioztatu daitekeen antzera, bilatzen dituzten aldaketak oso konplexuak dira, hortaz, aurretikako planifikazio esfortzu izugarria beharrezkoa da. Hori dela eta, “planifikatutako aldaketak” bezala ere ezagutzen ditugu.

Hala ere, zenbait autoreen iritziz, (Guarro, A. 2005; Tyack, D. eta Tobin, W. 1994) hobe litzateke “eskola aldatzeko esfortzu planifikatu” kontzeptua erabiltzea. Izan ere, zalantzazko kontzeptu bat da haren ustez, batetik plana, hau da, intentzioa, eta bestetik, aldaketa, hau da, errealitatearen elementua.

Hortaz, egokiagoa izan daiteke, berak proposatutako kontzeptu hori edo erreforma hitza erabiltzea intentzioa adierazteko, eta aldaketa operatua edo arrakastatsua efektuari erreferentzia egiteko.

Honela, eskala handiko aldaketak sortu nahi ditugunean erabili beharreko kontzeptua dugu hau. Aipagarria da ere herrialde edo estatu mailan egiten dela gehienetan. Izan ere, erreformak Hezkuntza Sistema osoaren alderdi estrukturaletan oinarritzen dira nagusiki; sistemaren helburuak, sarbide eta iraunkortasuna, edukiak, zentro motak, profesional motak... Modu honetan, Hezkuntza Sistemaren aldaketa baten nahia suposatzen du, baina ez du normalean aurreko errealitatearekin modu latzean hausten.

Esan bezala, eskolaz kanpotik egiten da, Administrazio edo Gobernutik. Eraginduta ikusten diren herrialde osoko eskolak eta ikastolak ondorioak izango dituzte maila berean; baita eskola bakoitzeko profesional guztiak ere. Eraldaketa nahiko handiak izaten dira, eta askotan hezkuntza mundua hankaz gora uzten dute denboraldi batez. Gero, dena berrantolatzen da eta lasaitasuna berreskuratzen da; norberak bere kokapen pertsonala aurkitzean.

Honelako erreforma bat, errealitatean dagoen egoerak aurreko legea gainditzen duenean egiten da normalean, hau da, errealitatean egondako aldaketak hain handiak direnean zein praktika eta legeak ez direnean bat etortzen. Beste modu batera esanda, errealitate soziala eta hezkuntza errealitatearen artean desfasea dagoenean. Honela, ezinbestekoa da egoera sozial eta hezkuntza egoeraren artean koherentzia egotea. Horretarako, irakasleriaren garrantzia honako egoeratan oso handia da. Izan ere, haiek dira aplikatu behar dutenak; praktikara eramatea edo ez erabakiko dutenak.

Modu honetan, berrikuntza baten eragin eremua askoz ere murriztagoa da, puntualagoa. Aspektu kualitatiboekin harreman estuagoa du gehienetan; ikasgela konkretu bateko praktika, harrera plana ezartzea, pedagogia berritzaile bat erabiltzen hastea, hezkuntza emozionala lantzen hastea, materialak erabiltzeko modu berriak ezartzea, ebaluazioa egiteko modu desberdinarekin hastea... Edozein elementuaren inguruan berrikuntza egin dezakegu. Gainera, eskola barrutik erabakita daude orokorrean; irakasleek modu indibidualean egin dezakete, baita maila, ziklo edota eskola mailan ere.

Taula 2. Erreforma eta berrikuntzaren arteko alderaketa

	ERREFORMA	BERRIKUNTZA
Non sortu?	Eskolaz kanpo	Eskola barnean
Nork?	Administrazioak edo gobernuak	Eskolako profesionalek
Helburua	Sistemaren aldaketa estrukturalak eta kurrikularrak	Eskolaren alderdi kurrikular eta praktikoen hobekuntza
Aplikazio eremua	Estatu edo herrialde mailan	Eskola edo gela mailan
Iraupena	Luzea	Motza-ertaina
Maiztasuna	Txikia	Oso handia

* Guarro, P-ren (2005) informazioan oinarriturik nik egina

1.1.2.2. *Berrikuntza eta aldaketa*

Bi hauek; erreforma eta berrikuntza, aldaketa dute oinarri.

“El cambio en los centros escolares está condicionado por paradigmas en conflicto. Uno describe un mundo de predictibilidad, estabilidad y progreso. (...) Este mundo confortable, propio de la modernidad, está siendo abandonado. (...) El mundo posmoderno es un mundo de la diversidad, incertidumbre y confusión. (...) Es un camino prometedor para el cambio, que aún está en su infancia, con muchas cuestiones sin resolver” (Fink, D. eta Stoll, L. 1998: 317-318)

Oso kontzeptu konplexua dugu aldaketarena, hezkuntza alorrari dagokiola gutxienez, hura ulertu eta hobetzeari erreferentzia egiten dio. Casanova, M. A-k dioenaren arabera (2006) kontzeptu zalantzagarria izan daiteke, ez behar

bezain espezifikoa. Esan bezala, edozein erreforma edo berrikuntzaren efektua edo helburua da. Aldaketa hitza jokoan sartuko da, azaldutako moduan, eraldaketa bat eragin denean, hau da, errealitatean transformazio bat eman denean. Honela, hasierako egoera eta amaierako egoera konparatuz, analisi objektibo batean sartuz gero, aldaketa eman den ala ez esan ahalko dugu. Ezin dugu ahaztu, aldaketa kontzeptua deskriptiboa dela, eta ez baloratiboa, modu honetan, aldaketa bat egon dela esaten dugunean, erreforma edota berrikuntza bat modu eraginkorrean aurrera eramanean dugula esan nahi du; baina inolako balorazioan sartu gabe. Modu honetan, hobeko edo okerrera gutxiakako prozesu bat da. Orokorrean bi aldaketa mota desberdintzen dituzte adituek MECek egindako (2011) ikerketan adierazten den arabera: estrukturalak edo formalak, eta kualitatiboak.

Aldaketa horiek hobekoak baldin badira, sistematizatuak izango dira eta zabaltzen joango dira gutxiak; beste zentroetara, beste irakasleen geletara, beste herrialdeetara... Aipatzekoa da ere, ezinbestekoa dela aldaketa eta tradizioaren arteko oreka existitzea, aurretik ondo zegoena mantendu eta hobetu beharrekoa aldatu; ahal izanez gero, hobeko noski.

Eskola, gizartearen isla den aldetik, bakarrik aldatzen doa gizartea aldatzen doan heinean. Inolako lege ofizialaren beharrik gabe. Honela, aldaketa asko metatzen direnean, erreforma baten beharra sortzen zaigu; baina ez da zertan eman behar.

Guarro, A-ren (2005) arabera, aldaketa bat ematea ahalbidetzen duten zenbait faktore daude. Honela, edozein aldaketak zenbait oinarri edota lagungarri behar ditu; horiek izanez gero, errazagoa izango da nahi dugun helburua lortzea (besteen akatsak ez errepikatzea, arazoak aurreikustea, prozesuaren inguruan ezagutza handia izatea...):

- Material eta baliabide aniztasuna eta kantitatearekiko aski edukitzea (kalitatea eta kantitatea)
- Irakasleen etengabeko formakuntza egotea ezinbestekoa da; edota oso garrantzitsua gutxienez. Prestakuntza egokia izatekotan elementu, jarrera, prozesu... berriak ezagutuko dituzte eta ezagutza mota zabalagoa kontrolatuko dute.

- Beste zentro eta irakasleekin koordinazioa ematen bada, besteen akatsetatik ikaskuntza ahalbidetuko da. Besteen esperientziak aztertu, beste errealitateetatik ikasi eta propioa beste pertsona batzuei luzatu noski. Laguntza jaso eta laguntza eman. Laguntza esparru hori zenbait eta zabalagoa izan geroz eta hobe.

Bestetik, aurretik aipatu bezala, edozein aldaketak arrakasta izan dezake edo ez. Gutxi-gorabehera objektiboki neurtu daitekeen zerbait da; helburuen betetze mailaren arabera izan ere. Planifikatuta geneukan eta errealitatean emandakoaren arteko konparaketa eginez hain zuzen ere. Balorazio moral eta ideologikoak alde batera utzi beharko dira noski; arrakasta edo porrota izango da.

Gainera, hobekuntzaren kontzeptua agertu zaigu behin baino gehiagotan; egindako aldaketaren balorazio subjektiboa litzateke hau. Egindako aldaketa ona edo txarra den erabakitzean datza. Casanova, M. A-ren (2006) usteak kontuan hartuta, esan dezakegu edozein aldaketa gutxikako hoberako edo okerrerrako prozesu bat dela.

Honela, aldaketa bat Hezkuntza Sistemarentzat egokia den ala ez jakiteko, autore ezberdinen iritziz (Guarro, A. 2005 eta Casanova, M. A. 2006) hobekuntza egon den ala ez da kontuan hartu behar dena. Izan ere, aurretik ikusi bezala, hobekuntzaren ideia etengabe erabiltzen dute askok berrikuntza, aldaketa eta erreforma definitzerako orduan. Modu honetan, hezkuntzan gauzak ongi eginak egon daitezke (arrakasta izan) baina onurarik ez ekarri (hobekuntzarik ez). Egoera horretan aldaketa hori ez litzateke egokia edo komenigarria izango Hezkuntza Sistemarentzat. Alderantzizko kasuan ordea, aldaketa planifikatutakoarekin bat etortzen ez bada baina hobekuntzak sortzen baldin baditu sistemak behar dituen aldaketei buruz arituko ginateke.

1.1.3. Ezaugarri orokorrak

Modu honetan, argi dagoena, berrikuntza batek aldaketa bat dakarrela berarekin da; izan ere, zerbait eraldatzea berritasuna sortuz da.

Hezkuntza Berrikuntzaren ezaugarriak direla eta, iritzi desberdinak topatzen ditugu. Hauek, osagarriak dira, hau da, batak ez du bestea ukatzen; beste

modu batez azaldu edota informazio beste aspektuetatik hedatzen du. Blanco, R. eta Messina, G-k (2000) dioten arabera:

- Berrikuntzek eraldaketa eta aldaketa kualitatibo esanguratsuak suposatzen dute.

Aldaketa bat suposatzen du beti berrikuntza batek, baina edozein aldaketa ez da berrikuntza ordea. Berrikuntzak eraldaketa bat esan nahi du, hasierako egoerarekin konparatuz aldaketa kualitatibo esanguratsua eman dela; oinarrizkoa den edozein elementu edo estrukturan. Adibidez, material didaktiko berri baten erabilera aldaketa bat da; baina berrikuntza bat izateko aurretik zegoen errutinan eragina izan behar du, hau da, metodologian, harreman inter-pertsonaletan, ikaskuntza prozesuan, antolamenduan, funtzionamenduan... ondorioak izan behar ditu. Bestela, aldaketa soil bat bezala hartuko da. Honela, berrikuntzan parte hartzen duten indibiduo guztiengan aldaketa kultural bat suposatuko du. Beren jarrera, sinesmen, praktikak...eraldatuko dituen.

- Berrikuntza bat ez da zertan asmakuntza bat izan behar, baina aurretik zegoen sisteman aurrerapen bat sortzen duena bai ordea; berria den orden edo sistema batetarantz zuzenduz.

Berrikuntza eta asmakuntza hitz desberdinak direla ezin dugu ahaztu. Berrikuntza bat ez du zertan asmakuntza bat izan behar. Ez du zertan erabat berria den zerbaiten aplikapena izan behar. Hasiera batean zegoenarekin konparatuz, kualitatiboki berria edo desberdina den zerbaiti buruz ari gara ordea. Ikaskuntza eredu desberdin bat, antolamendu desberdin bat... izan daiteke, aurretik existitzen zena edo ez, originala edo ez, baina jasotzaileentzat berria dena. Modu honetan, berria dena egoera konkretua aztertuz definituko genuke, aurreko egoerarekin alderatuz. Honela, eskola bakoitzarentzat "berria" den hori desberdina izan daiteke.

- Kontzienteki egin behar da, nahita edo aurretik erabakita, eta horretarako planifikazioa eskatzen du.

Propio egindako aldaketa bat dakar berarekin. Honela, planifikaziorik gabe emandako aldaketak ez dira berrikuntzak izango. Honek ez du

esan nahi aurretik egindako planifikazioa buruz-behera jarraitzen ez duten aldaketak berrikuntzak ez direnik. Izan ere, edozein planifikazioa martxan jartzerako orduan hobekuntzak proposatu daitezke eta aurretik egindako plangintza aldatu daitekeelako. Baina, alde aurretik pentsatuta izan delako erakuslea da planifikazioaren existentzia. Horregatik, autore askok aldaketa eta berrikuntzaren arteko muga ezartzeko erabiltzen dute.

- Ez da berez helburu edo helmuga bat; hezkuntza hobetzeko tresna bat baizik.

Hezkuntza Sistemaren hobekuntzak dira prozesu honen helburua; hortaz, hobetzeko intentzioarekin burutzen dira beti ere. Honela, berrikuntza egokia izan dadin, berritzea ez da gure nahia izan behar, hobera joatea baizik, Gehienetan kalitateari egingo diote erreferentzia hobekuntza horiek, ez hainbeste ordea ekitateari. Orokorrean, ekitatean edo zuzentasunean aurrera egiteko erreformak beharrezkoak izaten dira.

- Aldaketa aurrera eraman behar dutenen onarpena behar da. Egindako aldaketak sakonak eta iraunkorrak izateko zentzua izatea eta burutu behar dutenen aldetik adostasuna egotea ezinbestekoa da.

Zuzenki parte-hartzaileak direnen kezka eta beharrak asetzen dituzten prozesuak izate ezinbestekoa da praktikara eramaterakoan inplikazioa eta motibazioa altua izan daitezen. Honela, kanpo eragileek planteatutako berrikuntzak direnean barne agenteen onarpena izatea eta haien iritziak entzutea garrantzitsua izan daiteke.

- Praktikan eta ideologian eragiten du. Horietan aldaketak sortuz.

Hezkuntzaren kontxesio eta praktikan aldaketak dakartza. Aldaketa hauek, irekiak egongo dira hobekuntza gehiago antzeman daitezkeelako; izan ere, berrikuntzak ez dira geldoak izan behar. Hortaz, esan genezake zentroko kulturaren benetako aldaketak edo aldaketa sakonak sortzen dituela. Hemen antzeman dezakegu erraz erreformarekin dagoen ezberdintasuna; erreforma aldaketaren diskurtsoa da eta berrikuntza ordea aldaketaren akzioa.

- Prozesu irekia eta amaitu gabea da eta praktikara eramatean ebaluazioa eta gogoeta edo hausnarketa eskatzen du.

Berrikuntza ez da prozesu simple bat, hezkuntzaren aurreko jarrera eta agertze edo posizionamendu bat ere bada. Honela, praktikara eramaterakoan zenbait jarrera izatea garrantzitsua da:

- Dinamikoa eta irekia:
Aurre planifikazioa eta praktika ez dira askotan bat etortzen. Elementu berriak agertzen dira, hasierako proiektuan ez zeuden iritziak eta proposamenak sortzen dira e.a. horregatik, egoera eta testuinguru bakoitza desberdina dela esaten da, eta horrek berrikuntzaren barneko berrikuntzak egin beharra dakar berarekin. Errealitatea ezin delako aurre ikusi zehaztasunez; praktikara eramatean nola burutuko den eta nola gertatuko diren ekintzak ezin delako jakin praktikara eramane gabe.
- Kritikoa eta erreflexiboa:
Ikerketa eta hausnarketarekin zuzenki harreman dago prozesu hau; praktikaren etengabeko ebaluazioarekin. Modu honetan, ez da soilik ikertzaile profesionalen lana hezkuntzaren inguruko ikerketa egitea. Irakasleak dira (edo izan beharko lirateke) askoren ustez hezkuntza praktikaren ikertzaile garrantzitsuenak beren praktikak oinarri izanik. Horretarako ebaluazioa ezinbestekoa da, helburuak bete diren ala ez ikusteko; hobekuntzak eman diren ala ez antzemateko, oraindik zer hobetu genezakeen aztertze... Horretarako, prozesu osoan zehar egin behar den ekintzaren inguruan ari gara (ez soilik amaieran). Honela, berrikuntzak egiteko topa daitezkeen zailtasun eta oztopoak antzemateko eta gainditzeko aukera bermatuko dugu. Bestetik, ezin dugu ahaztu berrikuntzaren alderdi guztiak ebaluatu behar ditugula; baita protagonista eta edozein parte-hartzailearen jarrerak ere bai.

Orain arteko gai guztietan bezalaxe, autorearen arabera iritzi desberdinak topatzen dira. Honela, adibidez, Pascual, R-ren hitzetan (1998) Escudero, J. M-ren (1998) sailkapena beste bat da. Sailkapen honetan, ezaugarrien inguruan

ondorengo ideiak ditu aipagarritzat::

- Definizio, eraikuntza eta parte-hartze soziala eskatzen duen prozesu bat da. Honela, edozein berrikuntza kategoria sozial, politiko, ideologiko, kultural...-en azpian pentsatuak izan behar da. Une historiko konkretu batean, sistema sozial baten ezaugarri konkretu batzuetan oinarrituz (ideologiak, ekonomia, kultura, politika e.a.), hezkuntza prozesuaren eduki eta orientabideak birpentsatzera edo berrikustera eramaten gaitu prozesu honek. Hortaz, edozein aldaketa ezin da berrikuntzat hartu gizartearen beharrak asetzeko intentziorik gabe, hala nola, etorkizuneko egoera hobetzean pentsatu gabe. Aipagarria da ere, eraikuntza sozial bat izango dela eta ondorioz, gizarte horren tentsio eta kontraesanak bertan agertuko dira ziurrenik. Hau da, subjektiboa izango da eta gizartearen ezaugarriak islatuko dira bertan; honek dakarrenarekin. Honela, gizarteak sortu beharko du; ezin da talde politikoaren eraikuntza soilak izan; gainontzeko gizartearen onarpena behar du (hezkuntza komunitatearena gutxienez). Ezin dugu ahaztu berrikuntzak egiteko gaur egun dagoen “zaletasuna”, berrikuntza planak partidu politiko bat bultzatzeko erabiltzea, etengabe dauden hezkuntza erreformak eta horien sendotasun, fundamentu eta legitimazio falta ez dela inolaz ere jokatzeko modu egokia.
- Hezkuntza erakunde eta subjektuen trebatze eta potentziatze prozesu bat da. Eta ez ordea programa berrien ezartzea, teknologia berriak ezartzea edota proiektuen izenak aldatzea. Horiek benetako helburuak lortzeko bideak edo tresnak izan daitezke baina ez helburuak zuzenean. Beste modu batera esanda, berrikuntza ez da helburua izan behar, hobekuntza baizik.
- Inertziaz egiten direnak, aurre-suposamenduak e.a. zalantzan jartzean oinarrituta dago: aurretik existitzen zena eraldatzea da, gehiegizko tradizioak ezabatzea, irudimen sortzailearen aldeko apustua egitea nolabait. Honela, jarrera kritikoa eta erreflexiboa izanik hasierako egoera baloratu eta hobekuntzak proposatu behar dira, praktikara eramateko orduan, erosotasunaren kontra joan beharra dago. Esfortzu bat suposatzen du, mekanikoki ateratzen zaigunari uko egitea hain zuzen ere.

- Printzipio eta intentzio onen aipatze soila ezin da izan. Haratago joan behar da; praktikara eraman behar da. Prozesu sakon bat da eta martxan jartzen ez bada planifikazioan geratzen gara. Horretarako, planifikazio hori oso zehatza eta argia izan behar da; batez ere helburu eta helmugari dagokionez, baina baita erabili beharreko materialak, baliabideak eta metodologiaren inguruko azalpenak ere. Hala ez bada, proiektuak paperaren gainean idatzita geratzen dira normalean, edota ekintzara pasatzekotan ez dira eraginkorrak izaten.
- Prozesu hau aurrera eraman ahal izateko; prozesu eta rol desberdinak martxan jarri behar dira eta hauek aurretik planifikatuta eta pentsatuta egon behar dira. Horien arteko koherentzia ezinbestekoa da. Hala nola, sozialki modu egokian eraikita eta definituta egon behar da. Berrikuntzan parte hartuko duten subjektu guztien arteko koordinazioa ezinbestekoa dela dugu aipagarri. Norberak argi eta garbi ezagutu behar ditu bere egin beharrak eta horiekin ados eta konpromezu baten bidez lotuta egon behar du.

MECek (2011) egindako txostenean agertzen den informazioaren arabera, autore desberdinen iritziak kontuan hartuta, Hezkuntza Berrikuntzaren ezaugarri ezinbesteko hauek ondorioztatzen ahal dira:

- Berrikuntza aldaketa moduan

Aurretik esan dugun bezala, aldaketarekin oso harremandua dago, hala ere, hizkuntza kolokialean, aldaketa positiboa edota hobekuntzari erreferentzia egiteko erabiltzen da. Honela, hezkuntzaren edozein prozesu hobetzeko berria den zerbait sartzea da. Eskolaren barne aldaketa bat da; bere ideiak (ideologiak), praktikak eta estrategiak eraldatzen dituen. Baita indibiduen funtzioak ere.

- Intentzio batekin egiten da

Hobekuntzarekin harremandutako intentzio batekin egiten da beti. Honela, edozein aldaketa ez da berrikuntza bat izango.

- Testuinguru bat du

Prozesu hau testuinguru baten barruan kokatzen da beti; berrikuntza bakoitzaren erakundearen egoera eta egoera soziala desberdinak dira, eta horietara moldatu behar dira.

- Hazkuntza suposatzen du

Baina ez edozein hazkuntza; pertsonala eta erakunde mailakoa baizik. Prozesuak inplikaturako irakasle eta profesionalena eta zentro osoarena.

- Prozesu bat da

Hezkuntzaren auto-erregulazio mekanismo bat izatera heldu behar da, baita irakasleen garapen profesionalaren motorra ere. Beren etengabeko formakuntzaren atal bat bezala eta beren praktikaren inguruan ikerketa bat egiteko era egoki baten modura kontsideratu behar luke hezitzaileek berrikuntzaren prozesu hau.

Konplexua den fenomeno baten aurrean gaude; askotan ulergaitza eta nahasgarria izan daitekeena. Izan ere, dimentsio desberdinak hartzen ditu eta aldi berean hartzen ditu elementu nominalak (zer berritu, zergatik eta zertarako) eta prozesualak (nola, zerekin, zeren bidez...).

Azken finean, hezkuntza hobetzeko helbururarekin bertan dauden arazoak ebazteko nahian, ideia eta jarrera berriak izatearen prozesua da.

- Adierazgarritasunaren arabekoak dira

Orokorrean, profesionalek berrikuntza batzuk beste batzuk baino gehiago nahiago dituztela esan daiteke. Haien berrikuntza batzuk besteak baino adierazgarriagoak izango dira; beren aurreko egoera hobetzen dutenak, ustezko beharrekin bat etortzen direnak, kontrastagarriak direnak, beren emaitzak behagarriak direnak eta lortzeko zailak ez direnak adibidez.

1.1.4. Hezkuntza berrikuntza motak

Gure herrialdean azken urteetan egin diren Hezkuntza Berrikuntzak oso anitzak dira, izan ere, beren helburuak, intentzioak, edukiak, prozesuak.. erabat desberdinak dira. Nahiko zaila suertatzen da Hezkuntza Berrikuntza moten sailkapen argi bat ezartzea eta beraz, aurkitzea. Izan ere, autorearen arabera iritzi desberdinak daude eta horien arteko mugak ez daude oso modu argian

zehaztuta. Honela, ikuspuntu desberdinak aztertuko ditugu:

Rivas, M-k (2000) adibidez propietateetan oinarritutako klasifikazioa egiten du. Horretarako berrikuntzaren hartzailea, berrikuntza hori aplikatzeko modua, intentsitatea eta kantitatea aztertzen ditu. Horietako bakoitzaren barruan kategoria edo mota desberdinak ezarriz:

- Hartzailea edo parte hartzaileen arabeko sailkapena:
 - Sistemaren mugen iraupenerako egindako berrikuntzak: Hezkuntza Sistemaren eta edozein erakunde eskolarrean, publikoa nahiz pribatua, sistema horren parte-hartzailea den ala ez zehazten duten muga batzuk daude. Muga horiek mantentzeko eta zentro edo sistemaren identitate berezkoarekin jarraitzeko, zenbait jarduera burutzen dira. Jarduera horietan berrikuntzak egiten ahal dira, adibidez Hezkuntza Proiektuan egiten direnak edota zentroko pertsonala aukeratzeko irizpideak.
 - Erakundearen tamaina eta zabaleran eragiten dutenak: Erakunde eskolarraren indibiduo parte-hartzaileen kantitatearen handitzea edo txikitzearekin lotutakoak dira. Orokorrean ikasle-irakasleen kantitateari egingo dio erreferentzia. Asko dira horien ratio egokiena zehazten saiatzen ari direnak, baina perfekzioa lortzea ezinezkoa dela ezin dugu ahaztu; testuinguru bakoitza ezberdina delako eta guztientzako eredu bakarra izatea desegokia litekeelako.
 - Eskolako instalazioetan egindakoak: Espazio eskolarraren antolamenduan eta erabileran hobetzea. Adibidez, espazioak egokitzea, altzari eta estruktura didaktiko berriak ezartzea edota daudenak modu desberdin batean erabiltzea. Hala nola, liburutegi bat jartzea, laborategiak, teknologia gelak e.a.
 - Denbora eskolarrean esku hartzen dutenak: Hezkuntza jarduerak marko tenporal baten barruan kokatzen dira, denboraldi edo modulu desberdinetan banatuta daude beti.

Eskola kurtsoaren iraupena, eskola egunaren denboralizazioa, saioen banaketa, ikaskuntzaren denboraldi egokienak e.a. honela, horietako edozeinetan eragiten duten berrikuntzei buruz hitz egiten ari gara. Azken urteetako berrikuntza eta ikerketa ugari ikasleen ikaskuntzaren denboralizazio horien inguruan izaten ari dira

- Eskolako helburuetan eragiten dutenak: Edozein zentro eskolarra helburu batzuekin sortua izan da. Hortaz, jarduera batzuk burutuko dituzte beren helburu orokorrak edota espezifikoak betetzeko. Honela, aurretik zeuden helburuak eraldatuko dituzten berrikuntzak egin daitezke, horien arteko lehentasunetan aldaketak egin edota helburu berriak planteatzeko aukera dago.
- Eskolako prozeduretan egindakoak:
Oso anitzak izan daitezke:
 - o Prozedura edo jarduera didaktikoetan egindakoak: ikaskuntza indibidualizatuta eskaintzeko edozein jarduera, talde txikietan lan egitea, ikasgaien banaketa aldatzea besteen artean.
 - o Kurrikulumaren antolakuntza eta aplikazioarekin zerikusia dutenak: ikasgaien arteko integrazioa egitea, helburu edo edukien betetzearen antolamendua,...
 - o Material kurrikularretan egindakoak: edukien barneratzea sustatzeko erabilitakoak aldatzea; testuak, liburuak, filmak, programa informatikoak e.a.
 - o Gelen antolakuntzan egindakoak; ikasleak taldekatzeko modu desberdinak, gelen ikasle kantitateetan aldaketak, ikasleen aniztasunari aurre egiteko eta beharrak asetzeko multzokatze anitzak...

Profesionalen roletan eragiten dutenak: Helburuak betetzeko zentroaren parte-hartzaile bakoitzaren funtzio edo rolekin zerikusia dutenak. Norberaren lanaren zehaztean, bakoitzaren esku-hartzean, betekizunak eta eskubideak e.a. zehaztea modu desberdinean. Adibidez, departamentu

-
- berriak sortzea, rol berri baten agerpena zikloko koordinatzaile bat hala nola e.a.
 - Balore, kontzepzio eta sinesmenekin harremandutakoak: Ikasle edo eskolaren balore nagusietan aldaketak egitea, eskolaren ideietan moldaketak planteatzea, arau berriak ezartzea e.a.
 - Eskolako estruktura eta harremani buruzkoak: Eskola baten elementu guztiek haien arteko loturak eta harremanak dituzte; departamentuak, ikasle taldeak, zuzendaritza taldeak, zikloko lan taldeak e.a. horien arteko komunikazioan eta elkar-eragiteetan efektua duten berrikuntzak, hala nola egitura horizontal edo bertikalago bat sortzeko prozesuari egin ahal diogu erreferentzia.
 - Sozializazio prozesuekin lotutakoak: Sistemako kulturaren edota erakunde eskolarrean integrazio soziala hobetzeko helburuarekin egindakoak. Ikasle, irakasle edota edozein langileari zuzenduta egon daiteke. Harrera plana, integrazio edo inklusio planekin zerikusia dutenak .e.a.
 - Sistema edo erakundearen arteko loturetakoak: Erakunde eskolarra eta inguruaren arteko elkarreraginetan ondorioak dituzten hobekuntzak dira. Pertsonen arteko negoziazioak, koordinazioan aldaketak, sarean lan egitea e.a. Berrikuntza geroz eta garrantzitsuagoak dira hauek.
- Aplikazio edo praktikara eramateko moduan oinarrituz:
 - Adizioa: Aurreko estruktura edo atalak moldatu gabe zerbait berria gehitzean datza. Adibidez, IKT-en erabilera sartzea, trafiko arauen ikaskuntza gehitzea, helburu bat barneratzea... baina hasiera batean zeudenetan eraginik jasan gabe.
 - Errefortzua: Aurretik existitzen zen zerbait azpimarratzean datza. Ikasgai batean sakontzekoak egindakoak, teknika baten ikaskuntza bermatu nahi izateagatik egiten direnak,

- material bati buruzko ezagutza zabaltzekoak e.a. Honela, edozein kausagatik zerbaiten ikaskuntza sendotzea interesatzen zaigunean burututako ekintzak izanago dira.
- Ezabatzea: Sistemaren parte-hartzailea zen elementu bat ezabatzean datza. Aurretik zegoen ohitura bat, jarrera bat, ikaskuntza mota bat (memoristikoa adibidez), lehia, ebaluatzeko teknika edo tresnaren bat (azterketa tradizionalak) ...
 - Alterazioa: Aurretik zegoen elementu, jarrera edo estrukturaren batean aldaketak egitea baina hasierako horiek erabat ezabatu gabe. Adibidez, pelikula bat DVD-an ikustea lehenengo aldiz.
 - Ordezkapena: Elementu bat beste batengatik ordezkatuta denean ematen da. Testu liburu bat beste batengatik aldatzen denean adibidez edota matematikako irakasle berria etortzea.
 - Berregituraketa: Sistemaren estrukturan eragiten dutenak. Rolan aldaketak, harreman inter-pertsonalak moldatzea, espazio edo denborak modu berrian antolatzea, ikasleen multzokatze desberdina planteatzea ...
- Intentsitatea kontuan harturik:
 - Marjinalak edo bazterrekoak:

Irakaslearen rolean transformazio sakonak eragiten ez dituztenak dira, irakasleriaren funtsean ondoriorik ez dituztenak hala nola. Bere jarreraren zenbait aspektu hobetu daitezke, baina bere ezaugarri nagusietatik abiatuz; jarrera, jarduera edo elementu berriren bat gehitzean datza baina ikaskuntzan eragin sakonik izango ez duena. Adibidez, test moduko azterketa egitea, baina azterketa kopuru bera, edukiak eta horien arteko denbora tarte bera mantenduz. Garrantzi edo eragin handirik ez duten berrikuntzak dira hauek; berrikuntzak izaten jarraitzen duten arren, ondorio

- handirik ez dutelako.
- Gehigarriak edo osagarriak:
Irakaslearen oinarrizko rola ez dute eraldatuko baina bere jardunbidea bai ordea. Honela, irakaslearen metodologian egiten diren aldaketa sakonak izango dira; edota metodoaren erabateko moldatzea. Honela, berria den zerbait gehituz aurretik zegoena osatu edo erabat berrituko dute. Adibidez, CLIL metodoa erabiltzen hastea hizkuntzen ikaskuntzarako.
 - Funtsezkoak:
Irakaslearen rola eta jarrera aldatzen dutenak dira hauek. Adibidez, subjektu orojakilea izatetik (irakaslea da informazioa daukan bakarra) ikaskuntza prozesuaren gidaria izatera pasatzea (denon artean ezagutza osatzen joan, ikasleek ezagutza badute). Intentsitate handien daukatenak dira, honela, helburuak, intentzioak eta nahiak aldatuko dituzte eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan eragin izugarria izango dute.
- Hedadura, kantitatea edo anplitudea:
 - Indibiduala/Gelakoa/Taldekoa/Erakunde mailakoa:
Nori eragingo dion kontuan hartu behar dugu sailkapen hau jarraitu ahal izateko: pertsona bakar bati, gela oso bati, gela bat baino gehiagori edo eskola osoari.
 - Osoa/partziala:
Erakunde osoan egiten direnak / irakasle batek edo multzo batek egindakoak eskola osoan eraginik sortu gabe
 - Kuantitatiboa (nolakotasun edo ezaugarrietan eragina duena)/ kualitatiboa (kantitate edo kopuruetan eragina duena)
 - Pertsonetan egindakoa (ikasleak, irakasleak, administraziokoak...)/baliabide eta materialetan egindakoa (ekonomikoak, materialak, teknikoak)/elementu desberdinen arteko loturetan egindakoa (planak, koordinazioa,

komunikazioak, erabakiak...).

Rivas, M-k (2000) aipagarri ikusten du kantitate edo hedapen handia duten berrikuntzen gehiengoak intentsitatea baxukoak direla eta alderantziz. Hau arazo bat bezala ikusiz, edota hobetzeko alor baten erara.

1.1.5. Dimentsioak, testuinguruak eta elementu parte-hartzaileak

Berrikuntzen barnean, elementu anitzak aztertu daitezke. Horien artean aipagarrienak dimentsioak, testuinguruak eta horietan parte hartu dezaketen elementu desberdinak dira.

- Berrikuntzaren dimentsioak

Tejada, J-ren (1998) teoriari jarraiki, berrikuntzak dimentsio anitzeko fenomeno bat bezala hartu daiteke. Berrikuntza guztietan ondorengoak aurki ditzakegu:

- Dimentsio nominala: Berrikuntzari eman behar diogun ikuspegia erabakitzea, erabili beharreko ideologiak edo printzipio hezitzaileak zehaztea eta behar diren materialak prestatzea da.
- Dimentsio politikoa: Halako aldaketa bat aurrera eramateko eskola baino zabalagoa den testuingurua kontuan hartu behar dugu; gizartea.
- Dimentsio teknologikoa: Teknologekin harremana duten zenbait elementuk parte hartzen dute normalean. Dimentsio honen barruan sartuko genituzke ere teknologia horiek erabiltzeko planifikazioak eta planifikazio hori praktikara eramateko erabiltzen dugun edozein jarraibidea.
- Testuinguruaren dimentsioa: Berrikuntzak espazio konkretu batean ematen dira; eskola, gela ... hauek oso ongi definituak egongo dira. Zentroan bertan berrikuntza horiek aurrera eramateko presioa eragiten duten taldeak topatzen ditugu eta horiei esker emango dira nolabait
- Dimentsio pertsonala edo biografikoa: Praktikara eramateko modua, pentsaeraren estruktura, ideologiak eta

irakaslegoaren ezagutza teorikoak: edozein aldaketa edota berrikuntzak pertsona eta beren jarreretan eragin behar dute benetakoak izateko, ez soilik erakunde eskolarrean.

- Berrikuntzaren testuinguruak

Berrikuntzak testuinguru desberdinetan eman daitezke. Eskola kanpotik gidatuak izan daitezke edota zentroan bertan erabakitakoak adibidez. Modu honetan, lau testuinguru maila desberdintzen ahal ditugula aipatzen du Juarez, M. H-k (MEC, 2011): gela, zentroa, hezkuntza Administrazio eta testuinguru soziopolitikoak. Hauetako edozein esparrutan eman daitezke; aldi berean edota bata bestearen atzetik, modu independentean edota menpekoan eta haien artean harremanduta edo ez.

Askoren ustez, Administrazioetik bultzatuta dauden berrikuntzak ez dute inolako aldaketarik sortzen eskolako kulturean. Honela, benetako efektua lortzeko, batez ere eskola barneko elementuen parte hartzea behar dugu. Hau da, lau testuinguru mailen arteko adostasuna izango litzateke berrikuntza bat aurrera eramateko egoerarik hoberena. Hala ere, errealitatean ez da hau askotan ematen; izan ere, zaila da edozein alorraren kanpo eta barne iritziak berdinak izatea. (Blanco, R.; Messina, G. 2000)

- Elementu parte-hartzaileak

Elementu hauen artean aktoreak eta agenteak desberdintzen ahal ditugu. Prozesuaren protagonistak direnak aktoretzat hartzen dira, hala nola, irakasleak, ikasleak eta ikaskuntza komunitatearen edozein sektore parte-hartzailea. Berrikuntza proiektu batek nahi dugun efektua izan dadin, irakaslegoaren inplikazio pertsonal eta profesionala beharrezkoa da. Izan ere, haiek dira hezkuntza berrikuntza emateko elementu ezinbesteko bakarra (MEC, 2011) hortaz, Administrazioetik aginduta dauden eta ikasleei zuzenduta dauden aldaketak (irakasleen inolako esku-hartzerik gabekoak) ezin dira berrikuntzatzat hartu.

Bestetik, agenteak azaldu behar dira. Hauek, berrikuntza bultzatzen edo errazten duten guztiak dira. Zentroko zuzendaritza

taldea, edozein kanpo laguntzailea, formazioa eskaintzen duten laguntzaileak, administrazioakoak, berrikuntza ebaluatzen duten inspektoreak...

1.1.6. *Berrikuntzaren prozesua*

Autorearen arabera, urrats desberdinetan banatzen da prozesu hau, baina guztiak ados daude ideia batean; berrikuntza jarduera eta estrategia konplexu eta anitzen arteko harreman dinamikoetan oinarritzen da.

Guarro, A-k (2005) adibidez, hiru fase ezberdintzen ditu: hasiera, praktika aldia eta ebaluazioa. Tejada, J-k (1998) ordea, bost ataletan zatitzen du. Tejada, J-ren multzokatzean sakonduko dugu; izan ere urrats gehiagotan banatuta egotean horietako bakoitza xehetasun ugari agertzen ditu:

1. Planifikazioa:

Egoera eta beharrak aztertzen dira. Jarrera irekia eta malgua eskatzen du, izan ere, diseinua egiterako orduan soluzio, proposamen... anitzak egon daitezke gure helburuak beteko dituztenak. Parte-hartzaile guztien (aktore eta agenteak) funtzioak zehaztea ezinbestekoa da, baita fase edo urrats desberdinen denboralizazioak erabakitzea, erabili beharreko baliabideak finkatzea e.a.

2. Sakabanatzea edo barreiatzea:

Praktikara nola eramango den pentsatzea eta adostea

3. Adopzioa edo adaptazioa:

Norberak plangintza hori berea egitean datza. Pertsona bakoitza desberdina da eta egoera desberdin batean dago. Hortaz, horretara egokitzea ezinbestekoa da. Subjektu bakoitzak bere estrategiak, erreakzioak, errekurtsoak, ezagutzak, ikasleak, oztopoak... aztertu eta horien araberrako esku-hartzea prestatu.

4. Garapena:

Praktikara eramatea; hala nola, aurretik egindako plangintza martxan jartzea.

5. Ebaluazioa:

Prozesu osoan zehar egitea komenigarria da, ez ordea amaieran soilik. Berrikuntzaren garapenean batez ere egin ahal izango dugu, baina

esan bezala, ezin dugu ahaztu ebaluazioa prozesu jarrai bat dela eta hobekuntzak proposatzeko helburuarekin egiten dela. Ebaluazio hau kanpotik edo barnetik egin daiteke, hau da, prozesuaren partaideak direnek egin dezakete edo kanpoko norbaiti eskatu ahal diote. Ikuspuntu aniztasuna egotea aberasgarria izan daiteke, izan ere, berrikuntzaren barne subjektuek ikusten ez dituzten zenbait alderdi antzemango dituzte errazago kanpo subjektuek; eta alderantziz.

Zenbait autorek erakunde bihurtzearen fasea gehitzen dute hemen amaierako fasea bezalaxe (MEC, 2011). Fase honetan, egindako berrikuntza ebaluatu ostean egokitzen da eta zentro osora zabaltzen da. Honela, eskolaren kulturaren parte izatera pasako da.

Guarro, A-k (2005) beste era batean banatzen du prozesu hau:

1. Hastapenak:
 - a. Aldaketaren elementuak zeintzuk diren identifikatzea
 - b. Gaiaren inguruan informazioa biltzea
 - c. Egin beharreko aldaketaren planifikazioa edo pentsatzea
 - d. Aldaketaren diseinua egitea
 - e. Praktikan nola jarriko dugun diseinatu
2. Ezarpena (praktikara eramatea aldaketaren ezaugarriak eta eskolaren kanpo eta barne faktoreak kontuan harturik)
3. Jasangarritasuna (proiektuaren mantentzea, irautea denboran zehar)
4. Ebaluazioa, hausnarketa eta dagozkion berrikuntzak (aldaketa berriak gehitu, egindako aldaketan hobekuntzak proposatu, akatsak aztertu e.a.).

Ikus daitekeen antzera, esan daiteke gutxi-gorabehera denek urrats berdinei ematen diete garrantzia, baina modu berean taldekatzen dituzte horiek.

1.1.7. Berrikuntzarako oztupoak

Gaur egungo egoera aztertuta, esan daiteke zenbait elementu edo jarrerek oztopatzen dutela aldaketa eta berrikuntza egoerak. Honen inguruan ere, zenbait autorek hausnartu dute ondorio desberdinak lortuz. MEC egindako

ikerketan (2011) agertzen den arabera Carbonell J-k (2002) "berrikuntza lortzeko zazpi bekatu kapital" aipatzen ditu.

1. Instituzioen inertzia:

Orain arte lan egiteko moduarekin jarraitzeko ohitura dago; berria denak beldurra ematen duelako eta irakaslegoaren erosotasunaren galera suposatzen duelako. Beren errutinak, interesak, tradizioa e.a. alde batera uztea suposatzen du eta horrek beti esfortzu bat suposatzen du. Egonkortasunaren galera dakar, egoerak aurreikusteko ezintasuna eta ondorioz kontrol falta. Guzti hau zaila da eta berrikuntzak ez egiteko alde zurrerako joera dago.

2. Indibidualismoa:

Irakasleen jarrera indibidualizatuta dago; indibidualizatuegia izan ere. Gainontzeko profesionalengandik isolatuta eta aldentuta; erabateko bakardadean topa ditzakegu. Norberak bere egoera eta esku-hartze eremuaren erabateko jabea izatea errazagoa da talde lanean aritzea baino. Ezerk ez du zure esparruan eragingo, espero ez duzun ezer ez da gertatuko dena irakasle bakarraren esku dagoelako.

3. Korporatibismoa:

Batetik, interes pertsonalak Hezkuntza Komunitatearen interesen gainetik jartzea nagusi dela dio. Bestetik, interesen, ezagutzen, zikloaren... araberrako talde txikietan biltzea eta horietako bakoitzaren barruan botere harremanak ezartzea daukagu.

Bi hauen bidez, zenbait irakasle, ikasle eta guraso isilduak geratzen dira eta boterean hegemonizazioa (batzuen gailentzea beste batzuen gainetik) ematen da. Honela, kolaborazioa baino istiluak eta gatazkak bilatzen dituela esan genezake.

4. Irakasleen formakuntza:

Irakasleen hasierako eta etengabeko formakuntzan hutsune handiak topa daitezke. Irakasleen atal handi bat edukiak transmititzeko prest dago soilik, eta argi dago horrekin ez dela aski. Ikaskuntza esanguratsua eman behar da eta ikasle guztien beharrak ase behar dira; bizitzarako prestatu behar dira eta horretarako estrategia eta jarrera bereziak behar dira.

5. Konfiantza eta adostasun eza:

Berrikuntzak ezinezkoak dira hezkuntza taldearen barruko konfiantza existitzen ez bada. Horretarako komunikazioa eta antolamendu egokia egon behar da haren barruan. Baina eskola gehienetan ez dago. Hortaz, harreman sozial eta profesionalak hobetzeko egoera psikologiko eta ekologiko egokia sustatu beharko litzateke, gaur egun falta delako.

6. Irakasleen lanaren eta burokraziaren handitzea eman da:

Irakaslegoaren gehiegizko lana eman da azken urteetan. Izugarritzko presioa eragiten ari da irakasleengan, nagusiki bi arrazoiengatik:

- a. Gizartean aldaketa ugari eman dira eta horiek eskolan islatzeko nahia dago; hau irakasleen esku utziz.
- b. Gizartearen arazo guztiak ebazteko tresna bezala ikusten dute askok.

Honek estutasuna eta urduritasuna dakar hezitzaileengan. Argi eduki behar da eskolak bakarrik ezin duela ezer gutxi egin, gizarte osoaren lana delako izan ere.

7. Administrazioaren laguntza falta dago:

Botere publikoen aldetik sentsibilizazio gutxi dago, hortaz, hezkuntzarako aurrekontuak txikiak izaten dira; behar baino txikiagoak gutxienez. Gaineratu beharra dago baliabide tekniko, pertsonal eta laguntza baliabideak urriak izatea dakarrela horrek besteen artean. Baita proiektu berritzaileen planifikazio, jarraipen eta ebaluazioan ere, noski.

Rivas, M-ek (2000) ordea, beste ahulezi edo oztopo batzuk nabarmentzen ditu, zehatzago izateko berrikuntzaren murriztaileak bezala aipatzen ditu:

- Gain esfortzua: Jarduera berritzaileak gain esfortzu bat bezala bizitzen dira hezkuntzaren arduradunen aldetik. Lan “estra” bat izango balitz bezala, esfortzu gehitua izango balitz bezala hain zuzen ere. Haien ohiko lana alde batetik eta berrikuntzak beste batetik multzokatzen dituzte eta horrek koherentzia eta lotura falta du ondorio, baita bigarren mailako zerbait ikustea ere Honela, oso garrantzitsua ez den alor bat bezala hartzen da eta irakasleen aldeko esfortzu handiagoaren “erruduna” balitz bezala.

- Profesionalen berehalako erantzuna: Irakasleek beren lan “arruntak” bezala kontsideratzen dituzten horiek (berrikuntzak ez direnak, tradizionalki zeuden ohiturak) gailentzen dira berria den zerbait txertatzearen gainetik. Honela, horiei lehentasuna emango diete berrikuntzak bigarren maila batean utzita; eta denbora soberan dagoenean egiteko edo zeregin bat bezala erabiliko dute. Modu honetan, irakasleen berehalako erantzuna tradizionalki egiten egon diren jarduerak eta jarrerak izango dira; normalean ikasleen beharrak berehala aintzat hartzeko ihesbidearekin.
- Hezkuntza Sistemaren zurruntasuna: Hezkuntza Sistemaren osagai desberdinak berrikuntzak egiteko jarrera egokia ez dute; honela, horiek murrizten dituztela esan daiteke; irakasleak, Administrazioa e.a. alde honetatik Hezkuntza Sistema Berrikuntzak jasatearen aurrean zurrunezia dela esan daiteke.
- Ziurgabetasuna: Jarrera tradizionalekin jarraitzea ziurtasuna bermatzen dizu, ez ordea jarrera berriak izatea. Alde honetatik, errutinen erabilera egoerak aurreikustea eta kontrolatzea dakar; baina berria den zerbait erabiltzen badugu bere ondorioak zeintzuk diren ez dugu jakinen. Emaizarekiko gehiegizko kezka dagoela gaur egungo gizartean
- Heziketa pedagogiko mugatua: Irakasleen prestakuntza falta dagoela diote askok; berrikuntzen aurreko ezjakintasuna eta horren ondorioz horiek bideratzeko prest ez sentitzea.
- Profesionalen laguntza falta: Ikasleen hezkuntza prozesu egokia eskaintzeko laguntza falta dutela dio irakasleen atal handi batek. Ikasleen arteko aniztasuna dela eta bakoitzaren beharrak asetzeko zailtasunak dituzte jada, hortaz, berrikuntzak egiteko baliabide askirik ez dituztela gela bakoitzean ikasle kantitatearengatik izan daiteke hau ere. Gainera, denbora faltarekin harreman dezakegu eta efektu moduan beste irakasleekin koordinazioa izateko arazoak, bizipenak partekatzeko zailtasunak... Aipagarri da ere Administrazioaren euskarri murrizta eta aholku falta.
- Ez ulertzea eta jarrera ezegokiak: Gurasoen aldeko jarrera berrikuntzekiko oso positiboa ez izatea aldarrikatzen dute ere; ez

dituztela ulertzen, pazientziarik ez dutela nolabait. Gainera, ikasleen jarrera desegokiak ematen direla berrikuntzen aurrean esaten dute. Orokorrean, balio gabeko zerbait bezala jotzen dutela; denbora pasatzeko jarduera bat balitz bezala.

- Errekurtsio instrumentalen falta: Berritzaileak diren praktikak aurrera eramateko baliabide material eta instrumental falta ematen dela diote adituek. Espazioak, material zientifiko eta teknologikoak e.a.
- Eraitzen ez-jakintasuna: Berrikuntzaren emaitzak ezin ditugu alde aurretik jakin, izan ere, bestela ez litzateke berria den zerbait izango. Horren inguruko kezka handia omen da irakasleen artean. Honela, epe laburrean emaitzak azalera ditzuten berrikuntza sinpleak nahiagoko dituzte konplexuagoak eta sakonagoak direnak baino.

Honetaz gain, badaude berrikuntzaren garaipena edo aurrera eramate egokia zailtzen duten zenbait alderdi edo faktore eta horiek multzokatzeko sailkapen edo ikuspuntu desberdinak ere, noski. Aurretik aipatutakoaren desberdinak diren beste zenbait azter ditzagun:

MEC-en ikerketan (2011) Marcelo, C-k egindako sailkapenaren arabera, faktore administratibo, antolatzaile, pertsonal eta planifikaziozkoetan banatu daitezke oztopo horiek:

- Administrazio faktoreak
 - Berrikuntzen formatua gehiegi erregulatu nahi izateak, proiektuak testuingurura egokituak ez izatea du ondorio.
 - Beharrak topatzean, administrazio ea zentroen arteko desadostasuna.
 - Burokrazia gehiegi egoteak, esku-hartzen dutenen aldetik gogoeta eta kritikotasunaren galera dakar. Izan ere, bete beharreko baldintzak betetzen pentsatzen dute gehienbat.
 - Administrazioaren aldetik berrikuntzarekiko errekonozimendu faltak irakasleen motibazioa txikitzen du.
 - Eskola publikoen langileetan egonkortasun falta dagoenez, proiektuen jarraikortasuna oztopatzen da.

- Faktore antolatzaileak
 - Irakasleen gehiegizko lana eta denbora faltak antolatzeko arazoak dakar; ordutegiak moldatzeko arazoak, espazioak adosteko zailtasunak, bilerak egiteko oztopoak, jarduerak koordinatzeko ezintasuna ...
 - Zentro askotan berrikuntzak ez daude integratuta, egoera puntual bat bezala ikusten dira eta talde murriz baten lana izango balitz bezala.
 - Curriculumaren egiturak ez du gehiegi laguntzen. Ikasgaien arteko lotura handirik ez dago; diziplinaka edo ikasgaika banatuta dago eta banaketa horrek mugak ezartzen ditu berrikuntza horiek aplikatzerako orduan.
 - Zentro askori gertatzen zaien bezalaxe, berrikuntza proiektu gehiegitan parte hartzeak proiektu horien arteko koordinazio eza eta helburuak ahaztea sor dezake. Izan ere, irakasleei gehiegi eskatzea izan daiteke; esparru zabalegia hartu nahi izateagatik azalean geratzea eta sakontasunez ez lan egitea nolabait.
 - Zentro eta inguruko agenteen presioa emaitza akademiko eta kalifikazioengatik.

- Faktore pertsonalak
 - Zuzendaritza taldearen laguntzarik ez izatea edota inplikazio falta beraiek partetik.
 - Irakaslegoaren aldaketarekiko beldurra.
 - Berrikuntzaren sortzaileekin harremantzea soilik proiektua, hau da, irakasle gutxi batzuen esku geratzea eta gainontzeko profesionalek ez parte-hartzea. Sarritan gertatzen da irakasle batek aplikatzea berrikuntza egokia baina zentroa utzi behar izatea eta berrikuntza hori guztiz desagertzea.
 - Irakasleen heziketa falta.

- Irakasleen lan talde giroa egokia ez bada, edozein proiektuaren koordinazioa zailduko da.
- Irakasleen koordinatzailearen formakuntza falta.
- Planifikazio faktoreak
 - Proposatutako berrikuntza ez denean bat etortzen zentroaren behar eta interesekin.
 - Proiektua aurrera eramateko beharrezkoak diren material edo baliabideak ez daudenean.
 - Planifikazioa oso egokia ez izatea eta nahi ziren emaitzak ez direla lortzen ari ikustea.

Bestetik, Guarro, A-k (2005) agertzen duen moduan, Fullan, M-ren (2002: 53) iritzia kontuan izanez gero beste ikuspuntu zehatzago bat da nagusi:

“El principal problema no es la ausencia de innovación en las escuelas, sino más bien la presencia de demasiados proyectos inconexos, episódicos, fragmentados y adornados de forma superflua. (...) el mayor problema que afrontan las escuelas es el de la fragmentación y el exceso de innovaciones”.

1.1.8. Egoera hobetzeko proposamenak

Autore askok, berrikuntzak modu eraginkorren aurrera eramateko zer bete behar den aztertzen ari dira. Ikerketa ugari egin dira aldaketa baten emaitzak egokiak izateko helburuarekin, eta ondorioz, berrikuntzak modu eraginkorren egiteko eta hezkuntzan hobekuntzak jasateko zenbait irizpide agertu dituzte (Miralles, P.; Maquillón, J.; Hernández, F.; García, A. 2012):

- Zerbait berria egiten ikastea suposatzen du, hortaz, irakaslegoaren formakuntza ezinbestekoa da. gaur egungo gradu titulu berriekin egoera hobetzen ari da eta etengabeko formakuntzaren ereduak indar gehiago jasotzen ari du.
- Azaldutako zenbait arazo ekiditeko formazio eta berrikuntza proiektuak taldekoak izan behar dira. Zuzendaritza taldearen onarpenarekin

gutxienez lan egin behar da eta parte-hartzera zuzendutako kultura batetara bideratuta egon behar dute.

- Lan talde egonkorrak izatea lagungarria izango da. Baita proiektuen egonkortasuna ere, hau da, ezin da aldioro berrikuntza berriak proposatzen aritu. Prozesu osoa jarraitzeko denbora behar da; bestela ez du ondorioz izango eta ez ditugu helburuak beteko.
- Zentroetako irakaslegoaren arteko komunikazioa hobetu behar da. Haien arteko esperientzien zabaltzea, informazioaren trukea, berdinen arteko lana e.a. erraztuz eta bultzatuz. Eskola osoaren norabide eta norantza bat ezarri behar da; helburu komuna dutela ezin dute ahaztu (ikasleen hezkuntza egokia bermatzea). Imbernón, F-ren (1994) ustez, bi elementu hauen arteko harremana oso handia da (irakasleen komunikazioa eta berrikuntzaren emaitzak).
- Administrazioen aldeko laguntza handitu beharko zen. Hezkuntza arloarekin harremandutako ikerketa eta berrikuntza deialdien handitzea. Honetarako, administrazio eta zentroen arteko harremana estutzea ere komenigarria litzateke. Honetan ari diren proiektu batzuk daude, hala nola, online dagoen Innova izenekoak. Hau, Hezkuntza Departamentua eta Salamankako Unibertsitatearen arteko lotura gunea da. Bertan, esperientziak partekatzen dira, dokumentuak agertzen dira, ikerketak, inkestak, foroak, e.a. (2014/06/04: <http://webcasus.usal.es/INNOVA/>)
- Berrikuntza eta irakaslegoaren etengabeko formakuntza estuki lotuak joan behar dira. Alde honetatik Administrazioak ere erantzukizuna izan dezake eta halako proiektuetan aritzen direnak nolabait “saritzea” egokia litzateke. Profil konkretu bat duten profesionalak hautatzeko eskoletan.
- Hezkuntzaren inguruko ikerketak praktikarekin zuzenki lotuta egon beharko litzateke. Kalitatea eskatu behar dugu baina baita praktikaren horizontea mantentzea. Horretarako irakasleen parte hartzea garrantzitsua da. Hau da, bertan eskolako barne eta kanpo agenteek aritzea.

1.2. Berrikuntzen egoera

1.2.1. Europa mailan

Berrikuntzen inguruko gaur egungo egoera aztertzeko, ezinbestekoa dugu Europa mailan azkeneko urtetan zehar emandako garai edo urte esanguratsuak aipatzea. Gai honi geroz eta garrantzi handiagoa ematen ari zaio eta geroz eta berrikuntza gehiago egiten ari dira. Horretarako, ezinbestekoa da 2009.urteari buruz hitz egitea, izan ere, Europak berrikuntzei zuzendutako urtea bezala izendatu zuen Valle, J. M-k dioenaren arabera (MEC, 2011).

Urte horretara arteko egoera nolakoa izan zen aztertzea garrantzitsua izan daiteke, garapena nolakoa izan zen ulertzeko adibidez, hau da, berrikuntzaren aldeko urte hori hutsetik ez zela sortu ulertzeko. Hortaz, aipagarriak diren zenbait data dauzkagu ere, besteen artean:

1996 “Hezkuntza eta Etengabeko Formazioaren Europar urtea” (“Año Europeo de la Educación y de la Formación Permanentes”). Bertan zenbait gaien inguruko hausnarketa proposatzen zuten:

- Hezkuntza eta formaziorako motibazioa bultzatu behar da.
- Hezkuntza orokorraren kalitatea altua izatea oso garrantzitsua da.
- Heziketa Profesionala sustatzea.
- Hezkuntza eta etengabeko heziketa sustatzea.
- Hezkuntza zentro, heziketa zentro eta enpresen arteko koordinazioaren handitzearen beharra.
- Gurasoen sentsibilizazioa.
- Europa mailako koordinazioa.

2001 “Hizkuntzen Europar urtea” (“Año Europeo de las Lenguas”). Urte honetarako helburu batzuk zehaztu ziren:

- Bi hizkuntza gutxienez ikasteko aukera izatea eskola aldian.
- Beste hizkuntza eta kulturen aurreko jarrera irekiak sustatzea.
- Heziketa Profesionalean hizkuntzen ikaskuntza bultzatzea.
- Ikasle atzerritarren Hezkuntza Sistemari barneratzea erraztu.
- Hizkuntzak ikasteko metodologiak berritu.
- Hizkuntzen irakasleen mugikortasuna bermatu.

- Hizkuntzen gaitasunak homologatzeko sistemak sortzea.
- Hizkuntzen irakasle kualifikatuak eta kalitatezkoak edukitzea.
- Zentro ofizial eta edozein hizkuntzekin lotutako erakundeen arteko koordinazioa handitu.

2004 “Kirolaren Bidezko Hezkuntzaren Europar urtea” (“Año Europeo de la Educación a través del Deporte”). Honetan, helburu batzuk finkatu ziren ere bai:

- Kirolaren bidez ikasten diren baloreak aprobetxatu
- Kirolarekin erlazioa duten erakunde eta elkarten arteko koordinazioaren garrantziaz ohartarazi
- Kirolaren garrantzia azpimarratu eta kirola praktikatzeko baldintzak erraztu gizarteko maila ekonomiko desberdinetan.
- Adimena eta fisikoaren osasuna bermatu
- Kiroletan sexu berdintasuna sustatu.

2005 “Biztanleriaren Europar urtea Hezkuntzaren bidez” (“Año Europeo de la Ciudadanía a través de la Educación”). Kasu honetan planteatutako helburuak honakoak izan ziren:

- Ikasle, guraso eta irakasleen arteko botere harremanetan egoera demokratikoak bultzatu.
- Hezkuntzaren kalitatea handitu herritartasunean.
- Herritartasuna garatzeko metodo berriak erabili
- Herritartasuna hobetzeko ariketa eta kurtsoen zabaltzea lortzea

Azkenik, esan bezala, 2009.urtea iritsi zen. Hura “Sormena eta Berrikuntzaren Europar urtea” daukagu (“Año Europeo de la Innovación y de la Creatividad”). Izan ere, Europar Batzordearen ustez, bi erreminta horien bidez gaur egungo gizartearen arazoak ebatzi daitezke edo zitezkeen. Honela, nahiz eta berrikuntzaren gaia modu orokorrean aipatu, hezkuntzaren laguntza eskatzen dute haiek egindako proposamenak. Hau da, hezkuntza gizarte arazoak garaitzeko tresna moduan proposatu zuten nolabait; bertan berrikuntzak aplikatuz eta sormena landuz.

“... la promoción de la creatividad y la capacidad de innovación de adaptaran a todas las etapas de aprendizaje permanente, desde el aprendizaje temprano a través de la educación y de la formación obligatorias y post-obligatorias, a lo largo de toda la vida laboral hasta la fase posterior a la jubilación. Se aplicará en entornos de aprendizaje formal, no formal e informal” (MEC, 2011: 465)

Honetarako zenbait helburu planteatu ziren hezkuntzarekin lotuta:

- Aniztasun kulturalarekiko irekitasuna; kulturen arteko komunikazioa bultzatzeko.
- Arte, eskola eta unibertsitateen arteko lotura estuagoak sortu.
- Haurren sentsibilizazio estetikoak, garapen emozionala, pentsamendu kritikoa eta intuizioa estimulatzea.
- Berrikuntzaren aldeko gaitasun matematikoak, zientifikoak eta teknologikoak garatzea.
- Auto-espresioaren modu berritzaile eta sortzaileak sustatu.
- Formazio artistikoa bultzatu.
- Formazioaren bidez elkarte publiko eta pribatuen jarduera berritzaileak garatu.

Helburu hauek betetzeko asmoz, zenbait konferentzia, kongresu eta ekitaldiak antolatu izan dira azken urteetan. Baita “idea gakoak” identifikatzekok, ulertzeko eta barneratzeko kanpainak ere. Urte horretatik aurrera hezkuntzan berrikuntzak egoteari geroz eta garrantzi handiagoa ematen joan zaio. Geroago ikusiko dugun antzera, berrikuntza horiek hasieran teknologiko eta materialak izatearen nahia zegoen, baina orain hazkunde psikologiko eta sozialera zuzendutako norabidea hartzen ari dute.

1.2.2. Estatu mailako administrazio mailan

1.2.2.1. Egindako deialdiak

Juarez, M. E; Requena, L; Silva, I eta Tunedo, A-k MEC-en (2011) agertutako informazioan oinarriturik, Espainiako estatu mailan berrikuntzetarako zenbait laguntza eta sari zuzenduta daudela esan dezakegu. Horietarako zenbait deialdi egiten dira eta nahi dutenek beren proiektuak aurkezten ahal dituzte.

Hurrengo taularen bidez laburbiltzen dira azkeneko urteetan egondako deialdiak etapa eta Administrazioetan banatuta.

Taula 3. Deialdiak etapaka

Hezkuntza Administrazioak	Etapa 1 (1980-1989)	Etapa 2 (1990-1995)	Etapa 3 (1996-2004)	Etapa 4 (2005-2007)	Totala
Andaluzia			34	27	61
Aragoi	1	2	11	12	26
Asturias			6	8	14
Kantabria			15	12	27
Gaztela la Mantxa			14	12	26
Gaztela eta Leon			7	10	17
Katalunia			10	17	27
Balentzia	9	4	32	19	64
Extremadura		2	36	14	52
Galizia			18	14	32
Balearrak			8	10	18
Kanariak	6	14	52	19	91
Errioxa			12	7	19
Madril		3	37	10	50

Murtzia			11	12	23
Nafarroa			19	7	26
Euskal Herria	18	9	38	12	77
Hezkuntza Ministeritza	9	13	52	48	122
TOTALA	43	47	412	270	772

*MEC-ek (2011) argitaratutako informazioarekin nik egina

Taulan ikus daitekeen antzera, 772 deialdi egon dira. Horietatik 43 lehenengo etapakoak dira, 47 bigarrenengo etapakoak, 412 hirugarrenengoak eta 270 laugarrenengoak. Deialdien gehiengoa 1996-2004 tartean koka dezakegu. Administrazioen artean aipamen gehien dituztenak Hezkuntza Ministerioa (122), eta Kanariak (91) dira. Gutxienak egin dituztenak ordea, Asturias, Gaztela eta Leon eta Balearrak.

1.2.2.2. Deialdi motak

Lau deialdi multzo banatu daitezke; laguntzak, sariak, laguntza eta sariak eta beste deialdi batzuk. Bakoitzak nahi duen deialdian parte hartu dezake. Ondorengo taulan ikus dezakegun parte-hartze banaketarekin:

Taula 4. Deialdi motak Administrazioako

Hezkuntza Administrazioak	Deialdi motak			
	Laguntzak (%)	Sariak (%)	Mistoa (%)	Beste batzuk (%)
Andaluzia	44	48	0	8
Aragoi	73	0	0	27
Asturias	100	0	0	0

Kantabria	52	26	0	22
Gaztela la Martxa	42	38	15	5
Gaztela eta Leon	65	35	0	0
Katalunia	78	22	0	0
Balentzia	58	42	0	0
Extremadura	64	36	0	0
Galizia	9	91	0	0
Balearrak	62	38	0	0
Kanariak	52	46	2	0
Errioxa	47	53	0	0
Madril	44	42	14	0
Murtzia	39	61	0	0
Nafarroa	85	12	3	0
Euslak Herria	68	14	0	18
Hezkuntza Ministerio	12	87	1	0
Media	55	38	2	4

* MEC-en (2011) informazioan oinarrituta nik egina

Beste deialdien kategorian deialdi bereziak biltzen dira; horietan Administrazioetik zuzendutako berrikuntzak sartuko genituzke edota zenbait proiektu esperimental laguntza ekonomiko eta materialaren beharrik ez duena.

Ikus daitekeen modura, ia guztiek (Asturias ez ezik) sari eta laguntzetara aurkezten dira. Gehienek sarietarako partaidetza eskatzen dute.

1.2.2.3. Jasotzaileak

Jasotzaileen artean irakasleak, zentroak edota edozein hezkuntza profesional topa dezakegu (psikopedagogoak, inspektoreak ...).

Gaineratu beharra dago beste kategoria batzuk ere daudela; hala nola, beste erakunde edo elkarte hezkuntzarekin harremana dutenentzat bideratuta dagoena. Azken hauen “beste batzuk” multzoan sartzen dira. Jasotzaileak zehazki nortzuk diren aztertzeke helburuarekin honako taula aurkezten da:

Taula 5. Deialdien jasotzaileak

Hezkuntza Administrazioak	Zentroak orokorrean	Zentro publikoak	Zentro kontzertatuak	Irakasleak	Bestelako profesionalak	Beste batzuk
Andaluzia	33	23	2	66	16	13
Aragoi	46	4	0	50	23	8
Asturias	43	57	0	7	0	7
Kantabria	0	52	30	19	0	15
Gaztela la Martxa	35	0	0	65	0	0
Gaztela eta Leon	6	0	18	76	12	6
Katalunia	70	0	11	41	15	22
Balentzia	31	3	0	69	56	0
Extremadura	17	6	0	77	15	12
Galizia	0	12	0	87	0	9

Balearrak	67	0	11	22	44	50
Kanariak	40	25	0	49	0	8
Errioxa	21	0	0	95	0	0
Madril	48	10	12	30	24	0
Murtzia	26	4	0	70	0	0
Nafarroa	77	8	0	15	0	0
Euslak Herria	70	5	9	16	4	0
Hezkuntza Ministerio	7	37	31	37	7	22
Media	35	14	7	50	12	10

* MEC-ek (2011) aurkeztutako datuekin nik egina

Irakasleak dira jasotzaile nagusiak, %50arekin. Zentroen aldetik, %36etan jasotzen dutela esan dezakegu. Hauen barne ordea, publikoek %19 alditan eta kontzertatuek %16etan.

1.2.2.4. Deialdien gaiak

Hurrengo taularen bidez, administrazioka, aurretik azaldutako laugarren (2005-2007) etapan egindako deialdiak adierazten dira gaika zehaztuta:

Taula 6. Deialdien gaiak Administrazioka

Komunitate Erkidegoa	Gaiak	Komunitate Erkidegoa	Gaiak
Andaluzia	IKT (%24) Kalitatea (%17) Berrikuntza orokorrean(%17)	Balearrak	Ingurumenaren zainketarako hezkuntza (%50) Berezko hizkuntza (%30) Hizkuntzak (%20)

	Bizikidetza (%17) Hizkuntzak (%14)		
Aragoi	Hizkuntzak (%25) Berrikuntza orokorrean (%25) Bizikidetza (%25) Berezko kultura (%17) Kultur aniztasuna (%8)	Kanariak	Liburutegia eta irakurmena (%21) Berezko kultura (%16) Berdintasuna (%16) Kultura artekotasuna (%16) Zentroen hobetzea (%16) Irakaslegoaren errekonozimendua (%10)
Asturias	IKT (%38) Kalitatea (%38) Osasuna (%24)	Errioxa	Ikerketa (%43) Berrikuntza orokorrean (%43) Kontsumorako hezkuntza (%14)
Kantabria	IKT (%67) Berrikuntza orokorrean (%67) Hizkuntzak (%11)	Madril	Kirolak (%30) IKT (%20) Material didaktikoak (%20) Berrikuntzak orokorrean (%20) Artea (%10) Ingurumenaren zainketarako hezkuntza (%5)
Gaztela la Mantxa	Berrikuntzak orokorrean (%42) Zeharkakotasuna (%25) Berezko kultura (%25)	Murtzia	Ikerketa (%25) IKT (%50) Berezko kultura (%17)

	Unibertsitatearekin kooperazioa (%16) Hizkuntzak (%8)		
Gaztela eta Leon	Berrikuntzak orokorrean (%30) IKT (%20) Kalitatea (%20) Irakurketa bultzatzea (%10)	Nafarroa	IKT (%43) Gaitasunak (%28) Berrikuntzak orokorrean (%14)
Katalunia	Irakaslegoaren errekonozimendua (%18) Ikerketa (%18) Berrikuntzak orokorrean (%18) Hizkuntzak (%18) Berezko hizkuntza (%12) Liburutegiak (%12) Testu liburuak (%12)	Euskal Herria	Berrikuntzak orokorrean (%25) Kalitatea (%25) Osasunarekiko hezkuntza (%25) Immigranteentzako hizkuntza (%25)
Balentzia	Ikerketa (%32) Ingurumenaren zainketa (%16) Zeharkakotasuna (%14) Immigrazioa (%16)	Galizia	IKT (28) Berrikuntza orokorrean (%21) Zeharkakotasuna (%14) Bizikidetzak (%14) Ingurumenaren zainketarako hezkuntza (%14)
Extremadura	Baloretan heztea (%43)	Hezkuntza	Irakurketa (%21)

	Berrikuntza orokorrean (%36) Berezko kultura (%21)	Ministerioa	Kalitatea (%17) Ikerketa (%8) Helduentzat (%8) Hizkuntzak (%8) IKT (%8) Aniztasunaren ulermena (%8)
GAIEN TOTALA	87		

*MEC-ek (2011) argitaratutako datuekin nik egina

Aurreko taulako datuak gaietan zentratuak aurkezten ahal ditugu, horrela, gaien artean zeintzuk izan duten harrera handiena izan dutenak nabarmenduko da:

Taula 7. Deialdien gaien maiztasuna

4.etapako gaiak	Hezkuntza Administrazioak	Administrazio kopurua
Helduak	Hezkuntza Ministerioa	1
Zentroen arteko sareak	Hezkuntza Ministerioa	1
Behar bereziak dituzten ikasleak	Hezkuntza Ministerioa	1
Ingurumena	Balentzia, Galizia eta Balearrak	3
Artea	Madril	1
Kalitatea	Andaluzia, Asturias, Gaztela eta Leon, Kanariak, Euskal Herria eta Hezkuntza Ministerioa	6

Baterako hezkuntza (coeducación)	Balentzia	1
Komunikazioa	Murtzia	1
Konpentsatzea	Hezkuntza Ministerioa	1
Kontsumoa	Errioxa	1
Bizikidetza	Andaluzia, Aragoi, Balentzia, Galizia, Hezkuntza Ministerioa	5
Unibertsitatearekin kooperazioa	Gaztela la Mantxa	1
Berezko kultura	Aragoi, Gaztela la Mantxa, Extremadura, Balearrak, Kanariak, Murtzia	6
Kirolak	Madril	1
Gaitasunen garatzea	Nafarroa	1
Hizkuntzak	Andaluzia, Aragoi, Kantabria, Gaztela la Mantxa, Katalunia, Hezkuntza Ministerioa	6
Berdintasuna	Kanariak, Hezkuntza Ministerioa	2
Immigrazioa	Balentzia eta Euskal Herria	2
Berrikuntza orokorrean	Andaluzia, Aragoi,	12

	Kantabria, Gaztela eta Leon, Gaztela la Mantxa, Katalunia, Extremadura, Galizia, Errioxa, Madril, Nafarroa eta Euskal Herria	
Ikerketa	Katalunia, Balentzia, Errioxa, Murtzia, Hezkuntza Ministerioa	5
Kultur artekotasuna	Aragoi, Kanariak	2
Berezko hizkuntza	Katalunia, Balearrak, Nafarroa	3
Liburutegia	Katalunia, Gaztela eta Leon	2
IKT	Andaluzia, Asturias, Kantabria, Gaztela eta Leon, Galizia, Madril, Murtzia, Nafarroa eta Hezkuntza Ministerioa	9
Prentsa eskolarra	Murtzia	1
Irakaslearen errekonozimendua	Katalunia eta Kanariak	2
Testu liburuen errentagarritasuna	Katalunia	1
Zeharkakotasuna	Gaztela la Mantxa, Balentzia eta Galizia.	3
Baloreetan heztea	Extremadura	1

Material didaktikoak	Madril	1
Osasuna	Asturias eta Euskal Herria	2

* Nik egina MEC-ek (2011) argitaratutako datuekin

Edozein taulatako datuak aztertuz gero, “berrikuntza” dioen gaia dela nagusia ikus daiteke, haren atzetik IKT-ena izanik.

Berrikuntzaren gaiaren barruan oso anitzak diren proiektuak hartzen dira. Baina, gai zehatzak aztertzen baditugu, ondorengoak aurkituko genituzke hurrenez-hurren garrantzitsuenak bezalaxe:

- Komunikazio eta Informaziorako Teknologiak (IKT)
- Curriculumarekin lotutakoak
- Bizikidetzarako hezkuntza
- Zeharkako ikasgaiak
- Materialen prestakuntza
- Aniztasunari arreta

1.2.2.5. Baliabide ekonomikoak

Datu ekonomikoetan arreta jarriz gero, ondorengo taulak lor ditzakegu

Taula 8. Baliabide ekonomikoak etapa desberdinetan administrazioka

TABLA 10. RECURSOS ECONÓMICOS POR ADMINISTRACIONES EDUCATIVAS Y ETAPAS

	ANDALUCÍA			ARAGÓN			PRINCIPADO DE ASTURIAS			CANTABRIA		
	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL
TOTAL PRESUPUESTO	770.000 €	555.000 €	1.325.000 €	978.298 €	685.000 €	1.663.298 €	1.013.409 €	584.888 €	1.678.075 €	150.000 €	168.000 €	318.000 €
Número de convocatorias /total de convocatorias	33/34	17/27	40/61	8/11	9/12	15/23	8/06	8/08	14/14	4/15	4/12	1/27
Media	33.479 €	32.647 €	33.125 €	164.540 €	98.333 €	124.215 €	168.901 €	83.038 €	119.882 €	37.500 €	42.000 €	39.750 €
	CASTILLA-LA MANCHA			CASTILLA Y LEÓN			CATALUÑA			COMUNIDAD VALENCIANA		
	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL
TOTAL PRESUPUESTO	1.210.058 €	933.798 €	2.143.854 €	193.098 €	218.480 €	349.578 €	786.000 €	8.199.000 €	8.985.000 €	2.422.829 €	1.210.239 €	3.633.062 €
Número de convocatorias /total de convocatorias	13/14	8/12	21/26	4/07	7/10	11/17	8/10	15/17	21/27	32/32	18/19	51/51
Media	93.081 €	116.725 €	102.086 €	33.274 €	30.928 €	31.779 €	131.000 €	548.600 €	427.857 €	75.713 €	63.697 €	71.236 €
	EXTREMADURA			GALICIA			ISLAS BALEARES			CANARIAS		
	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL

	EXTREMADURA			GALICIA			ISLAS BALEARES			CANARIAS		
	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL
TOTAL PRESUPUESTO	2.100.828 €	1.292.244 €	3.393.072 €	194.020 €	448.000 €	642.020 €	132.300 €	86.000 €	198.300 €	7353.195 €	6.055.690 €	13.408.795 €
Número de convocatorias /total de convocatorias	36/36	14/14	50/50	9/18	8/14	17/32	2/08	5/10	7/18	38/52	16/19	52/71
Media	58.358 €	92.303 €	67.861 €	21.557 €	56.000 €	37.768 €	66.150 €	13.200 €	28.329 €	204.255 €	378.475 €	257.881 €
	LA RIOJA			COMUNIDAD DE MADRID			REGIÓN DE MURCIA			COMUNIDAD FORAL DE NAVARRA		
	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL
TOTAL PRESUPUESTO	133.016 €	144.000 €	277.016 €	4.318.831 €	818.380 €	5.237.211 €	381.287 €	351.518 €	732.797 €	255.156 €	237.258 €	492.414 €
Número de convocatorias /total de convocatorias	8/12	6/07	14/19	33/37	10/10	43/47	11/11	10/12	21/23	5/19	2/07	7/26
Media	16.627 €	24.000 €	19.787 €	130.873 €	81.838 €	121.795 €	34.682 €	35.151 €	34.895 €	51.031 €	118.829 €	70.344 €
	PAÍS VASCO			MINISTERIO DE EDUCACIÓN			TOTAL TODAS LAS ADMINISTRACIONES					
	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL	3.ª ETAPA	4.ª ETAPA	TOTAL			
TOTAL PRESUPUESTO	10.870.717 €	11.054.443 €	22.025.160 €	3.822.228 €	11.584.896 €	15.512.122 €	37.190.158 €	44.984.514 €	82.214.712 €			
Número de convocatorias /total de convocatorias	28/38	8/12	36/50	52/52	48/48	100/100	314/412	214/270	528/682			
Media	391.811 €	1.381.805 €	611.810 €	75.524 €	241.352 €	155.121 €	116.587 €	210.208 €	161.251 €			

*MEC (2011)-tik hartuta

Apatu beharra dago aurrekontuen erabatekoa ez dela proiektu berritzaileetara zuzendu, izan ere, inor ez delako aurkeztu edota inori ez zegokiolako.

Azken finean estatuak eskaintako baliabide ekonomikoak honakoak izan dira:

Taula 9. Baliabide ekonomikoak etapaka

	Hirugarren etapa	Laugarren etapa	Osotara
Aurrekontuak	37.230.198€	44.984.514€	82.214.712€
Deialdi kantitatea / deialdien kantitate totala	314/412	214/270	528/682
Diru media deialdiko	118.567€	210.208€	155.709€

*MEC-ek (2011) egindako txostenean agertutako informazioa oinarri izanik nik egina

1.2.2.6. Jarraipen eta ebaluazioa

Laguntzak eta sariak jasotzeko deialdi gehienetan ebaluatua izango dela zehazten da soilik, hau da, ez da jarraipenik egiten. Batzuetan ebaluatuko dutenen izen-abizenak agertzen zira ere. Talde horren partaideak hezkuntza

arloko aholkulariak, inspektore edota teknikoak izaten ohi dira eta zenbait egoeratan, kanpo adituen laguntza jasotzen dute.

Deialdi gehienetan, proiektua burutzeko erabilitako guztiaren aurrekontu zehatza eranstea eskatzen da.

Oso egoera gutxitan, proiektuaren garapenaren informe bat eskatzen da. Hau da, oso gutxitan eskaintzen da eskatutako laguntza tekniko eta jarraipena. Normalean, proiektuaren sortzaileak dira balorapena egiteaz arduratzen direnak eta hura Administrazioari eskaintzeaz; oso gutxitan zehazten da kanpotik ebaluazio prozesua

1.2.3. Nafarroako administrazioa mailan

1.2.3.1. Egindako deialdiak

Nafarroako egoera azterturik, esan beharra dago, bertako lehenbiziko aldiz berrikuntzekin harremana duten gaiak 1996.urtean agertu zirela. Zehazki, IKT eta kontsumoari zuzenduta.

Orain arte lau denbora tarte aipatu ditugu; lehenengo etapa, bigarren etapa, hirugarren etapa eta laugarren etapa. Horien artean azken biak sakonago aztertuko ditugu, izan ere egunerokotasuna dutenak interesatzen zaizkigu batez ere. Modu honetan, jarraian agertutako taulan bilduko ditugu:

Taula 10. Nafarroako deialdiak gaiaren arabera

	1996-2004	2005-2007
Deialdi kopurua	19	7
IKTekin lotutakoak	9	3
Kontsumoarekiko hezkuntzarekin harremana dutenak	7	-
Hezkuntza formaziorako	1	1
Konpetentzia eta	1	2

gaitasunen garapenari zuzenduta		
Berrikuntzak orokorrean	1	1

*Nik egina MEC (2011) argitaratutako datuen arabera

1.2.3.2. Deialdien jasotzaileak eta gaiak

Zentroak modu orokorrean dira nagusienak, zehatzago hitz egiteko %77arekin. Bigarrenik laguntza eta sarien %15a irakasleei zuzenduta dago eta %8a zentro publikoei.

Gaiei dagokienez, honako datuak izango genituzke:

Taula 11. Deialdien gaiak Nafarroan

Gaiak	1996-2004	2004-2007	Totala
Kurrikuluma orokorrean	%5	%31	%13
Orientazioa eta tutoretza	%5	-	%4
Berezko hizkuntza	-	%14	%4
Bizikidetza	%11	%29	%15
Zeharkakotasuna	%42	%29	%38
Metodologiak	%58	%71	%62
Material didaktikoak	%53	%57	%54
Teknologiak	%53	%57	%54
Ebaluazioa	%42	-	%31

Antolamendua	%5	%29	%12
Parte hartzea	%5	-	%4

* Nik egina MEC egindako ikerketan (2011) agertutako datuekin.

Nafarroan, arreta berezia prestatzen zaie metodologia berriei (%62), material didaktiko berrien sorrerari (%54) eta IKTei (%54).

1.2.3.3. Baliabide ekonomikoak

Bertako deialdietan saria edo laguntza jasoz gero, batzuetan, ekonomikoa izaten da eta beste batzuetan ordea, materiala edota pertsonala.

Baliabide ekonomikoei lotutako datu aipagarriak hurrengo taulan biltzen ditugu:

Taula 12. Etapa desberdinen aurrekontuak

Aurrekontuak	1996-2004	2005-2007	Totala
Totala	255.156€	237.258€	493.414€
Deialdien kopurua / deialdi kopuru totala	5/19	2/7	7/26
Diru media deialdiko	551.031€	118.629€	70.344€

*Nik egina MEC-eko (2011) datuekin

1.3. Berrikuntza aipagarriak

1.3.1. Gaur egun berrikuntza bezala hartutako gai nagusiak

MEC egindako ikerketan (2011) Valle, J. M-k agertzen duen moduan, Europar testuinguruan, berrikuntza nagusiak jarraian agertutakoak izan dira:

- Ikaskuntza esanguratsua ikasle guztientzat, horrek dakarren guztiarekin.
- Gaitasunetan oinarritutako ikaskuntza.
- IKT-ak erabili eskolek behar dituzten aldaketak lortzeko.

- Europar biztanleriaren garapena lortu; kultura, baloreak, erakundeak, hizkuntzak ... eta herrialde desberdinen arteko ikasleen toki aldaketak sustatu
- Harrera planak

Espainiako azken urteetan ordea, zenbait berrikuntzek izan dute beste batzuk baino aipamen nagusiagoa. Berrikuntzen gai nagusi horien artean Espainia mailan honakoak izango genituzke:

- Teknologia berriak edo IKT-ak
- Europar Komunitate eta Komunitate Erkidegoko hizkuntzak
- Hezkuntzaren kalitatea hobetzea
- Ebaluazio metodoak
- Demokraziarako hezkuntza; hezkidetzak, laguntasuna, errespetua, baloreak, berdintasun harremanak ...
- Aniztasunari arreta
- Arrera Planak
- Ikasgaien zeharkako lanketa
- Osasuntsu bizitzea
- Ingurumena zaintzea
- Ikaskuntza bermatzeko metodologia anitzak

Estatuko egoerari jarraiki, IKT-en gaia jorratzea ezinbestekoa da. Izan ere, berrikuntza guztien artean gailendu direnak izan dira, argi eta garbi. Hurrengo puntuan ikusiko dugun moduan, IKT-etan berrikuntzak egiteaz gain beste berrikuntza asko beharrezkoak dira; gehiago esanda, horiek egitea ezinbestekoa da. Berrikuntza garrantzitsu hauen artean aniztasuna nabaritu dezakegu, noski. Eskola, egoera eta testuinguru bakoitzaren arabera hautaketa egin beharko dugu; norberak badaki zer behar duen eta zer ez, eta hala ez bada, hori lortzeko bidea hartu beharko luke; beti ere, gaur egungo gizartearen beharrak aintzat harturik.

Modu honetan, kontuz ibili behar gara eta kritikoki berrikuntza horiek hautatu; beharren arabera eta ez ordea interesen arabera edo erosotasunaren arabera. Castillo, P.-ren ustez gai aipagarria da hau eta honakoa dio:

“El mundo de hoy es un entorno de alta competitividad, donde la cultura por acreditar, estandarizar, optimizar los productos, desarrollar competencias, gestionar eficientemente, entre otras, ocupan gran parte del discurso educativo y político. Producto de ello nos encontramos un escenario donde la capacidad de producir y de impactar en el medio se ha transformado en la meta fundamental” (Castillo, P. 2008: 50)

Ez genuke ahaztu behar erabateko krisialdi garaian gaudela eta sistema osoa dardarka ari dela. Honen aurrean geroz eta gehiago dira gizarte ereduaren aldaketa batera zuzendu nahi direnak. Hausnarketa sakon bat egin beharko genuke orduan errealitatean gizarteak dituen beharrak zehazteko; beharrak eta nahiak desberdinak direla ahaztu gabe.

1.3.2. IKT-ak berrikuntza aipagarritzat

1.3.2.1. Kontzeptua

Gaur egungo gizartearen alderdi gehienetan agertzen zaigu teknologia berrien mintzagaia. Are gehiago, batzuen ustez IKT-rik gabeko bizimodua pentsaezina da eta horiek gabe geratuko bagina edozein kausagatik, giza anabasa baten aurrean egongo ginateke, baita ekonomiko eta kultural kaosa emango zen ere. García, A eta Hernández, A-ren ustez (2013) IKT-en gaurkotasuna azaltzeko zenbait aspektu azpimarratzen egokia litzateke.

Oraingo gizartearen beharrak aldatu dira eta IKT-ak erabiltzen jakitea da horietako bat. Hortaz, eskola bizitzarako prestatu behar duen aldetik, ezagutza hori bermatu beharko luke. IKT-en erabilera osasuntsu bat ziurtatu, haien inguruko gaitasunak handitu e.a. Modu honetan, teknologia berri guztien balioa onartu, ulertu eta hartara egokitu behar da; etorkizuneko belaunaldien beharrak asez.

- Gaur egun daukagun informazioaren atal garrantzitsu bat ziberespazioan dago eta honek, haren erabilera malgua eskaintzen du,

bai denbora eta baita espazioaren aldetik ere. Hau da, edonon eta edonoiz bilatu dezakegu interesatzen zaigun informazioa.

- Gaur egungo ikasleak ohituta daude gauza bat baino gehiago aldi berean egitera; informazioa jasotzeko iturri desberdinak batera erabiltzera. Honen ondorioz, hezkuntzan jardueren kantitatea handitzearen beharra dago. Baita informazioa jasotzeko kodigo berbala baino modu dinamiko eta irekiagoak txertatzea. Alde honetatik, irudia eta baliabide audiobisualak oso lagungarriak izan daitezke.
- Belaunaldi oso desberdinekoak dira irakasle eta ikasleak gai honi dagokiola, honela, irakasleen formazioa ezinbestekoa da ikasleek ezagutza egokia jaso dezaten.
- Askoren ustez, maila sozialean dagoen behar edo menpekotasun hori hezkuntza testuinguruetan ez da hala eman. Gaiaren inguruko ikerketa asko egiten ari dira, baina oraindik horien eskolako integrazioa motela da eta irakasle askoren aldeko mesfidantza jasotzen ari du. Modu honetan, egun kritika ugari jasotzen dituen gai batena aurrean gaude.
- Oso berrikuntza konplexua eta dimentsio anitzekoa da, hortaz, etengabeko hausnarketa eta zalantza egitearen eskutik joan beharrekoa da ere bai.
- Hezitzailearen laguntzaileak bezala hartzea komenigarria da, beren erabilera kritikoa bultzatzeko eta horien botereaz probestu ahal izateko. Ez da gustuen araberako gaia; nahi edo ez nahi gizartearen ezaugarri nagusietako baten aurrean gaude eta landu beharreko gaia da.

Informazio eta Komunikazio Teknologia da beren izen osoa. Informatika eta komunikazioarekin erabateko harremana daukala ondoriozta daiteke; hau da, haren barne sartuko genituzke García, A eta Hernández, A-ren iritziz (2013):

- Informatika eta sistema digitalen tresnak
- Komunikazio digitalerako zerbitzuak

Honela, horien barne sartuko genituzke: telebista, ordenagailuak, eskuko ordenagailua, mugikorrak, internet, online dauden baliabideak, software eta hardwareak, audio eta bideoak erreproduzitzekoak, ADSLa, bideojokoak... ezin ditugu ahaztu hasiera batean egondako lehenengo IKT-ei aipamena egitea; hala nola telegrafo, irratia, telefonoa eta faxa.

Hauek gaur egungo gizartean duten balorea definitu dezakegu, Castillo, P-k (2008: 44) dio Ondalegui, J. C-ek honela definitzen duela:

“mosaico de sistemas de producción interdependiente la que se apoya en un sistema informativo, producción flexible, especializada descentrada y de economías de aglomeración”.

1.3.2.2. *Datu orokorrak*

MEC (2011)-ek agertutako datuak oinarri izanik, IKT-en gaur egungo egoera honela labur genezake:

- Eskoletan baliabide informatikoen txertatzea etxeetan emandakoaren parean doa.
- Europako herrialdeen artean gehien erabiltzen dituzten herrialdeak hauek dira: Noruega, Islandia eta Suedia. (2010.urteko datuak)
- Ikasleen gehiengoak badu ordenagailu bat eta internet (gutxienez) etxean. 2000-2003.urteetan PISA informetako parte-hartzaileen %85ak bazuen etxean internet eta %92k eskolan.
- Zentro eskolarretan dauden ordenagailu kopurua eta horien internet konexioa eskola eta IKT-en arteko harremanaren adierazle nagusia da.
- Ekipamendua garrantzitsua da baina ez da aski; orain arte Europako eskolen oso portzentai baxuan integratu ditu IKT-ak programazioan. Zentroen gehiengoak IKT-en harreraren hasierako faseetan daude (baliabide teknologikoak edukitzea eta horien erabilera ez koordinatua egitea)
- Santillana Fundazioak egindako informe batean “Las TIC en la Educación. Retos y Posibilidades” (2009) Europar Batasuneko herrialde bakoitzaren egoeraren laburpena topa dezakegu; baita i2010rekiko dituzten helburuak ere. I2010 Europar Komisioak duen marko estrategiko bat da eta bertan gaur egungo gizarteari (informazioa eta komunikazio bideen gizartea) zuzenduta dauden jarraibide eta orientazio politikoak aurkitzen dira. Bertan IKT-ak inklusioa lortzeko eta bizi kalitatearen hobekuntzarako faktore bat bezala agertzen dira.

(2014/06/04:<http://www.slideshare.net/robertaaaa/las-tic-en-la-educacin-retos-y-posibilidades>)

- Europar Batasuneko herrialdeen arteko media eginez gero, bederatzik ikasleko ordenagailu bat zegoen 2006.urtean. aipagarria da ere urte horretako irakasleen %76ak IKT-ak gelan erabiltzen zituztela ziurtatu zuten. (herrialdeen arteko diferentziak handiak direla garrantzitsua da).
- Espainian 2.0 eta 3.0 programek garrantzia hartu dute azken urteetan. Hauek IKT-en integrazioa gelan bermatu nahi duten proiektuak dira. Ikasle bakoitzeko ordenagailu baten erabilera bermatzea du helburu (1:1 eredua bezala ere ezaguna), baita gelak ahal diren neurrian teknologia berrien hornitzea ematea ere (eskola bakoitzak ahal duen neurrian eta erritmoan). Ebaluazio, hausnarketa eta ikuspegi kritikoa bultzatu behar dela antzeman da azken epealdian eta 2010 urtetik aurrera 2.0 proiektuaren inguruko irakasleen iritziak biltzera dedikatu dira zenbait adituk. Hala nola, 2011. urtean argitaratutako “¿Qué opina el profesorado sobre el Programa Escuela 2.0? Un análisis por Comunidades Autónomas” lanatik abiatuta lortutako ondorioak hauek lirateke:

(2014/06/04:http://ntic.educacion.es/w3/3congresoe20/Informe_Escuela20-Prof2011.pdf)

- Irakasleen gehiengoak badu internet konexioa eskolan.
- Irakasleen gehiengoak badi Arbela Digitala eskolan
- Eskola gehienetan ikasle guztientzako ordenagailuak daude.
- Irakasleek beren geletan lau jarduera mota burutzen dituzte:
 - Informazioa bilatu
 - Lanak sortu testu prozesadoreen bidez
 - Online dauden jarduerak egin
 - Arbela Digitalaren bidezko azalpenak eman
- IKT-en balorea onartzen dute; ikasleen motibazioan adibidez eragin zuzena dutela diote.
- Beste zenbait gaitasunetan eraginik ez dutela izan uste dute; hala nola, komunikazio eta adierazpenean.

- Irakasleen aldetik erabilienak diren zerbitzuak honakoak dira: Internet, korreo elektronikoa, aldizkari edo egunkari digitalak, hezkuntza atariak eta online kudeaketa edo gestioak.
- Arbela Digitalen txeratzea oso altua izaten ari da ere bai. Bertan, erabiltzeko nahiko erraza den software informatiko bat izanik. Espainiako eskola gehienetan hauetako bat gutxienez topa dezakegu.

1.3.2.3. *Garrantzia hezkuntza berrikuntza bezala*

“La tecnología está completamente presente en todos los ámbitos de nuestra sociedad actual. Casi podemos decir que sería difícil vivir sin ella, y si esta, por alguna razón, llegase a fallar, nos encontraríamos ante un verdadero caos social, económico y cultural. (...) Las TIC pueden ser un importante aliado en los procesos de innovación educativa (...)” (García, A.; Hernández, A. 2013: 11-14)

IKTen balioa ukaezina da, honela hezkuntza arloan ere horien balioa onartu beharrekoa da derrigorrez. Garatuta dauden herrialdeetako Hezkuntza Sistemen helburu nagusietako bat bilakatu da IKTen integrazioa. Hortaz, prozesu horren inguruko ikerketa eta analisiak ugariak dira modu nazional nahiz internazionalen García, A. eta Hernández, A-k (2013) argitaratutako datuen arabera. Ikerketa horien artean honakoak aipatzen dira adibidetzat: Sancho, 2002; Marchesi eta Martín, 2003; Cabero, Martínez eta Pendez, 2007; Álvarez eta Fernández, 2009 eta Cebrián, 2009.

Honela, ikerketa horietan lortutako zenbait datu aipatuko ditugu; horien bidez IKTek berrikuntza bezala duten balioa antzemango dugu.

Texas Center for Educational Research-ek (2009) egindako ikerketaren arabera, ordenagailu bat ikasle bakoitzeko duten zentroetan honakoak topa daitezke

(2014/06/04:http://etcjournal.files.wordpress.com/2010/07/etxtip_final.pdf):

- Irakasleen jarrera irekia izateko aukera gehiago daude; ikasleak ikaskuntzaren zentroa izateko probabilitatea handitzen da.
- Pentsamenduaren mailan gorakada bat antzeman daiteke jarduera konplexuagoak burutzen direlako.

- Ikasleen arteko interakzio komunikatiboak handitu ziren (pertsonalak eta lanekoak edo ikasteko zuzenduak)

Bestetik, Erresuma Batuan egindako beste ikerkuntza batean, Mc Fairne, Triggs eta Ching Yee (2009), 1:1 ereduaren inguruan (ordenagailu bat ikasle bakoitzeko) honako esan zuten (2014/06/04: http://dera.ioe.ac.uk/1473/1/becta_2009_mobilelearning_summary.pdf) :

- Gelako lan indibiduala, kooperatiboa eta interaktiboa errazten du.
- Ikasleen motibazioa handitzen du
- Ideiak eta ezagutzak partekatzea ahalbidetzen du.
- Gelako ikasleen parte-hartze maila igotzen du.
- Autonomia garatzeko erabilgarria da oso.
- Eskura uzten ditu baliabide anitzak, lekutik mugitu gabe aukerak irekitzen ditu.
- Ikasle edo irakasleen artean lanak eta baliabideak eskualdatzea bermatzen eta errazten du.
- Ikaskuntza malguagoa izatea sortzen du
- Informatika geletan zegoen gehiegizko presioa ezabatzen du.

Gainera, García, A eta Hernández, A (2013) diotenaren arabera ere, zenbait autoreen iritziz eskola inklusiboa eta globala eratzeko baliagarriak dira tresna hauek, izan ere, material eta tresna teknologikoen bidez zailtasunak dituzten pertsonen bizitza erraztu daiteke eskoletan edota lanbide munduaren partaide eginez.

Honela, IKT-ak integrazio edo inklusiorako erabilgarriak direla esan dezakegu eta alde horretara bultzatutako berrikuntzak txertatzea egokia izan daitekeela. Discapnet (2010) portalean topatutako informazioan oinarriturik, jarraian azaltzen diren alderdi positiboak dauzkatela esan daiteke. (2014/06/04: <http://www.discalpnet.es/Castellano/Paginas/default.aspx>)

- Diskriminazio eza eta partaidetza soziala edukitzera laguntzen du; biztanle eskubidea izanik.
- Komunikazioaren zabaltzea, baita zerbitzu eta merkatuari dagokionez.

- Informazioa eskura izatea
- Ikaskuntzaren mugak zabaltzea
- Jarduera laboralak izan eta egiteko aukeren zabaltzea
- Norberaren zailtasun eta oztopo zehatzak gainditzeko aukera izatea.

Bestetik, García, A eta Hernández, A-ren informazioan (2013) oinarriturik, IKT-en funtzio batzuk azaldu daitezke jarraian agertzen direnak:

- Argibide funtzioa: Errealitatearen informazio antolatua eskainiz, datu baseak, simulagailuak entziklopediak ...
- Funtzio irakasgarria: Ikasleen ikaskuntza erregulatuz, zenbait jarrera bultzatuz eta ezagutzaren eraikuntzan lagunduz.
- Funtzio motibagarria: Ikasleen atentzioa lortzen duten elementuen bidez, haien interesa mantenduz.
- Ebaluazio funtzioa: Ikasleen erantzun eta jarrerak berehala ikusteko aukera dagoelako; haiekin interakzioa handituz.
- Ikerketa funtzioa: Ikasle eta irakasleei ikerketak egiteko behar dituzten baliabide anitzak eskaintzen dizkie.
- Adierazpen funtzioa: Ikasleen arteko komunikazioa zabaltzea baita irakasleekin ere.
- Funtzio metalinguistikoa: IKT-en berezko hizkuntza ikasiz (baita ikaslearen hizkuntza edota hizkuntza berriak lantzeko aukera aproposa izaten da)
- Aisialdi funtzioa: Jolasak, jokoak ... bezalako jardueren bidez ikasleen denbora libre osatzeko gaitasuna dute.
- Berrikuntza funtzioa: Tresna teknologikoen erabilera berriak, metodologia berritzaileen oinarri gisarako, hizkuntza berrien txertatzerako, alfabetizazio digitalaren inguruko heziketa egiteko, norberaren erritmoa errespetatzeko tresna bezala e.a.

Autore horien iritziz, komunikazioaren zabalkuntza da IKT-en indar-gunea izan ere, hiru komunitate mota sortzeko aukera sortzen du:

- Interes komunitateak:

Interes komunak dituzten talde bat da. Haien artean laguntza eskaintzen dute informazioa partekatzeko, zalantzak argitzeko, jolasteko e.a. arazoak ebaztean ere laguntzen dira haien artean, baina ez dago kolaborazio dinamikarik; hau da, ez da talde kohesionatu bat.

- Ikaskuntza komunitateak:
Helmuga komuna dute taldekideek; denon artean ezagutza eraikitzea. Kolaborazio dinamika bat daukate, talde sentimendu bat dago; kolaborazioa, elkartasuna lanaren banaketa, erantzukizun komuna ... normalean taldearen gizadi bat egongo da; irakasle bat gehienetan.
- Praktika komunitateak:
Bereizgarri profesionala du normalean, pertsona sare bat da non interes domeinu bat konpartitzen duten (identitatea eraikitzen dien ezagutza esparru bat edukitzea komunean). Bertan, laguntza eskaintzen diote bata besteari esperientziak kontatuz, problemen ebazpenetan lagunduz e.a.

Ikus dezakegun modura baliabide informatikoekin jarduera eta esparru anitzak landu daitezke, honela oso tresna baliagarriak izaten ahal dira hezkuntza alorrean erabiltzeko.

1.3.2.4. *IKT-en beste aurpegia*

IKT-ek dakartzena ez dira dena onurak noski, erabilera anitzak egin daitezke eta asko aldatuko dira lortutako ondorioak eta emaitzak. Autore desberdinek gai honen inguruko ikerketak egiten aritu dira eta jarraian azaldutako informazioa daukagu horren erakusle moduan:

“Las TIC pueden estar sobredimensionando los viejos usos didácticos. Las TIC tienen potencialidad solo si su utilización supone repensar los factores implicados en los procesos de enseñar y aprender (...).
(García, A.; Hernández, A. 2013)

Honela, garrantzitsua da aipatzea ez direla dena onurak, eta kalteak edo oztopoak ere izan ahal dituztela komentatu beharra dago ezinbestean. García, A eta Hernández, A (2013) eskainitako informazioaren arabera, Europar Komisioak egindako ikerkuntza batean “Nuevos entornos de aprendizaje en la

educación” (2004) lortutako ondorioen barne IKT-ekin egiten diren berrikuntzen emaitzak ez direla IKT-en erabileraren ondorio zuzenak izango daukagu adibidez. Hau da, ikaskuntzaren berrantolamendu eta irakaslearen ikaskuntza eraldatzeko helburuarekin tresna teknologikoak erabiltzearen ahalmenarenaren ondorio edo eragina izango direla. Hortaz, modu zuzenean lotuta egongo dira emaitzak antolamendu moduarekin, irakasleen formazio eta jarrerarekin, korrante edo ikuspuntu pedagogikoekin eta ikaskuntza ereduarekin.

Aurretik aipatu izan dugu IKT-ak helburu edo helmugatzat hartzea ez dela egokia, eta horretan erortzea da gaur egungo oztopo ohiko eta ezagunetarikoa. García, A eta Hernández, A-k adierazitako moduan, Cuban, L-ren (2003) ikerketa anitzek guzti hau azpimarratzen dutela argi eta garbi (2014/06/04: <http://elbonia.cent.uji.es/jordi/2012/03/15/las-tic-para-que/>):

- 2.0 eskolak zentroaren proiektu eta irakasleen formaziorik gabe ez du funtzionatzen
- Irakasleek ez dakite ordenagailuen bidez lotuta dauden ikasleak bideratu”
- %50 eskolek ez dituzte beren proiektuen ebaluazio eta jarraipenak egiten.

Autore honek aztertutako 850 zentro pribatu eta publikoen inguruan beste zenbait datu gaineratzen ditu, besteen artean:

- Irakasleen %60ak IKT-ak gelan erabiltzen dituela
- Erabiltzen ez dituzten %40 aren barnean:
 - %45ak formazio faltagatik egiten du
 - %39 baliabide egokiak ez edukitzeagatik
 - %31 ziurtasun faltagatik
 - %5,3ak balore edo onurarik ikusten ez dielako
- Zentroen %20ek sare sozialekin arazoak izan dituztela onartzen dute (mehatxuak, argazkiak igotzea, errespetu faltak, erabilera ezegokiak e.a.)
- Zentroen %46k soilik, familiekin koordinazioa du IKT-en erabilera osasuntsua bermatzeko eta arauak eta jarraibideak bidaltzen dituzte.
- Zentroen %5ak interneten erabilera desegokiak izan dituztela aitortzen dute.

Modu honetan, ICTak berrikuntza bezala aplikatzeko oztopoak daudela nabarmendu dezakegu. Oztopo horien inguruko ikerketak geroz eta zabalgoak eta anitzagoak izaten ari dira; izan ere, orain arte tresna teknologiko hauen ikuspegi positiboa nabarmentzen zen gehienbat, eta duela gutxi arte ez da kalte eta zailtasunen inguruan gehiegi ikertu. Panorama de la educación Indicadora de la OCDE (2010: 19) ikerketaren arabera herrialde desberdinetan izandako esperientziaren ondorioz (1:1 ereduarekin, hala nola, ordenagailu bat ikasle bakoitzeko) lortutako ikaskuntzak honela laburbiltzen ahal dira (2014/06/04: <http://www.mecd.gob.es/inee/publicaciones/indicadores-educativos/Indicadores-Internacionales/OCDE.html>) :

- Hiru helburu nagusi daude: ikasleek gaitasunak eskuratzea, “ebaki digital” izeneko desagertzea eta hezkuntza praktiken hobetzea.
- ICTen inbertsio izugarria suposatu du 1:1 eredu jarraitzea. Hala ere, gastu hain handiaren eraginkortasunaren azterna handirik ez dago.
- ICTen agerpena eskoletan ez ditu zertan ikaskuntza eta irakaskuntza estrategiak aldatzen.
- Zentroen arabera alde handiak daude emaitzetan (1:1 proiektuaren emaitzetan).
- Tresna teknologikoekin lan egiteko gaitasunetan gorakada egon dela antzeman daiteke, ez ordea beste arlo garrantzitsuetan (matematika eta ingurunean hala nola).

Honetaz gain, proiektu hau praktikara eramatean izandako zenbait zailtasun azpimarratzen dituzte eta hurrengo proiektuetarako kontuan hartu beharrekoak bezala agertzen dira:

- Proiektu baten ebaluazioa ezinbestekoa da. Haren nondik norakoak proiektuaren planifikazioa egiterakoan zehaztu behar dira eta planifikatutakoaren helburu eta diseinuarekin koherentzia mantendu behar da.
- Ikasleen lorpenen ebaluazio eta azterketa oso zehatzak behar dira programaren praktika nolako izan den ondorioztatzeko. Edozein proiektuaren ebaluazioa erakunde internazionalak finantzatu eta bultzatu beharko lukete.

- Hobekuntza akademiko eta IKT-en arteko harremana aztertzeko ikerketa gehiago behar dira.
- Irakaslegoak helburu zehatzak eta argiak behar ditu tresna teknologikoak beren lanean txertatzeko. Horretarako pedagogia berritzaileen inguruko hezkuntza ezinbestekoa da.
- “Ebaki digitala” gainditzeko esfortzu handia egin behar da eta horrekin aurrera jarraitu behar da.

Beste alde batetik, Sancho, J. M-k (2009) IKT-ak berrikuntza moduan aplikatzean arazo eta oztopo batzuk identifikatzen ditu:

- Irakasleen bere lan propioaren garrantziarekiko konfidantza falta.
- Curriculumaren zehaztasun eta mailak.
- Administrazioak jartzen dituen trabak.
- Eskolaren zenbait denbora antolamendu, hala nola, saioak 45-50 minutukoak izatea.
- Espazio antolamenduak; ikasleen kopurua gela bakoitzeko, informatika gelak e.a.
- Irakasleen formazioaren nondik norakoak.
- Curriculumak arloka duen izaera, proposamen ireki eta malguak oztopatzen dituenak.
- Irakasleen aldeko motibazio falta berrikuntzak ezartzeko.
- Irakasle eta ikasleen autonomia maila txikia.

Egoera konplexu honetan irakaslearen lanaren garrantzia azpimarratzea ezinbestekoa da. Izan ere, bere esku egongo da gehienbat edozein berrikuntzaren emaitza, eta hortaz, etorkizuneko helduen heziketaren atal nagusi bat. Alde honetatik, ezinbesteko solasaldia da haien formazioaren ezinbestekotasuna, hurrengo puntuan komentatuko duguna. Bere eginkizunen garrantziaren ondorioz, irakasleen jarrerarekin harremandutako arazo eta oztopo ugari topa daitezke, noski. Honela, Telefonica fundazioan egindako (2011) ikerketa batean ondorengoak aipatzen dira (2014/06/04: http://www.fundacion.telefonica.com/es/arte_cultura/publicaciones/sie/sie2011.htm):

- Irakasle askoren motibazioa IKT-ekiko ez da aski.
- Irakasleen formazioa ez da egokia izan.
- Edozein aldaketarekiko beldurra dute askok; kontrol eza.
- Heziketa tradizionalaren pisua.

García, A eta Hernández, A-ren ustetan azken finean, IKT-ak erabilgarriak dira oso, baina soilik ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren inguruko birpentsatze sakon bat egiten baldin bada aurretik eta horretan hobekuntzak egiteko helburuarekin erabiltzen baldin badira. Honela IKT-ak txertatu aurretik zein eskola lortu nahi dugun argi pentsatuta izatea aholkatzen dute, baita IKT-en funtzioa lan hori lortzeko zein izango den planifikatzea ere.

1.3.2.5. *Irakasleak eta IKT-ak*

Aurretik aipatu bezala, irakasleen jarduera oso garrantzitsua da berrikuntzen gaian, baita ondorioz IKT-en gaian ere. Honela, nahiz eta formazioaren inguruko azalpena IKT-ekin harremanduta azalduko dugun nagusiki (gaur egun gehien planteatzen diren berrikuntzak direlako), azpimarratzekoa da irakasleen etengabeko formazioa ezinbestekoa dela hezkuntzaren ikuspegi guztietatik. Azkeneko urteetan egindako informe batzuetan, adibidez Telefonica fundazioan egindakoa, honako datuak aurki daitezke:

- Irakasleen arten %49ak negatiboki baloratzen du jasotako formazioa IKT-en inguruan.
- Gehienek online dauden materialak eta baliabideak erabiltzen dituzte.
- Gehiengoak IKT-en balioa onartzen du; lana errazten du eta aukerak zabaltzen ditu
- Baina talde handi batek IKT-en onurak ikaskuntzarekiko zalantzan jartzen ditu: Hamarretatik lauk (%40) ikaskuntza-irakaskuntza prozesua hobetzen ez dutela uste dute.

Edozein berrikuntzaren aplikapena prozesu zaila eta konplexua da, are gehiago IKT-ena, izan ere baliabide ugarien aldaketa eskatzen du eta izugarriko inplikazio ekonomikoa. Baita, esan bezala irakasle taldearen aldeko formazio berezi bat ere. Profesional askorentzat, IKT-ak bigarren mailako tresnak dira García, A eta Hernández, A-rentzat (2013). Hortaz, beren irakaskuntza prozesu

tradizionalarekin jarraitzen dute aurrera. Hau ez gertatzeko, formazio berezi eta egokia beharrezkoa da. Horrelako formakuntza jasoz gero IKT-en bidez hezkuntza hobekuntzak aurrera eraman ahalko ditugu; pedagogia berriak aplikatu, giro motibagarri eta parte-hartzaileagoa sortu, ikaskuntza esanguratsua bultzatu... eta noski, ikasleen jakintza IKT-en inguruan handitu.

Horretarako irakaslearen rola guztiz aldatu behar da. Hauek eduki behar duten profila erabat desberdina da. Hurrengo taularen bidez agertuko dugu:

Taula 13. Irakaslearen rol aldaketa

Rol tradizionala	Rol berria
Informazioaren transmisore bakarra	Informazioa eta ezagutza eraikitsera laguntzen du
Jakintzaren edukitzailea	Ikasleen jakintza azaleratu eta konplexuago bihurtzen du
Ikaskuntza prozesua bere esku dago	Ikaskuntza ahalbidetzen duena, gidari moduan
Hizkuntza berbala soilik erabiltzen du	Hizkuntza berbalaz gain beste baliabide anitzak erabiltzen ditu; egoeraren beharren arabera
Komunikazioa direkzio bakarrean ematen da eta hierarkikoa da erabat	Komunikazioa bi norabideetan ematen da, berdintasun harremanean.
Instrukzioak ematen ditu	Laguntzailea eta gidaria da

* Garcia, A eta Hernández, A-ren (2013) informazioarekin nik egina

Gaur egungo irakasleek izan beharko lituzkete: aldaketarekiko jarrera egokia, berrikuntzak egiteko gogoak eta tresnak, korrante eta ikerketa berrien emaitzak ezagutzeko gogo eta jarrerak, etengabe hobetzeko proposamenen inguruan hausnartzeko gogoak, jarrera kritikoa... baita IKT-en inguruko ezagutza maila minimo bat ere noski.

Irakasle bakoitza desberdina da eta norberak bere mugak non dauden jakin beharko luke; hortaz, norberak berarentzat zein formazio den egokiena, zer behar duen eta zer ez jakin beharko luke. Horretarako auto hausnarketa eta auto ebaluazio bat ezinbestekoa da.

IKT-en inguruko formazioari jarraiki, Apple Classrooms of Tomorrow (1996) elkarteak egindako sailkapenaren arabera, bost multzotan bana daitezke irakasleen une edo etapa desberdinak (2014/06/04: <http://www.apple.com/euro/pdfs/acotlibrary/rpt22.pdf>) :

1. IKT-en inguruko ezagutza oinarrizkoen jabekuntza.
2. Adopzio etapa, zeinetan irakaslearen aurreko metodologian txertatzen diren.
3. Egokitzea. Helburu konkretuen ezartzea eta horiek lortzeko IKT-en erabilera.
4. Jabekuntza: aurreko helburuen zabaltzea, kooperaziorako erabiltzea, problemen ebazpenerako e.a. Integrazio unea nolabait.
5. Asmakuntza fasea: berrikuntza baten (gutxienez) menpe egotera pasatzen dira. Ikaskuntza hobetzeko tresna bihurtzen dira berrikuntzak eta hauen benetako inklusioa ematen da.

Prozesua aztertzeko eta banatzeko modu desberdinak daude noski, horien artean STAR Tres izeneko informean egindakoa aipatu dezakegu (CEO Forum, 2000). Bertan, eskola eta IKT-en arteko harremanaren arabera lau lotura aurkezten ditu eta horietako bakoitzean irakaslearen jarrera nolakoa den aztertzen du. Jarraian agertzen den taulan laburbiltzen dugu. (2014/06/04: http://schoolnet.org.za/CoL/ACE/course/ukzncore1b/documents/core1b_CEO_Forum_Report4.pdf)

Taula 14. Irakasleen gaitasunak etapaka

	Lehen harremana	Teknologia garatua	Teknologia aurreratua	Teknologia amaierako helburua
Irakasleen gaitasunak	Oinarrizko jakintzekin aski da	Oinarrizko jakintzak + interneten erabilera	Oinarrizkoak + Internet + Eduki digitalak ikaskuntzan txertatu	Oinarrizkoak + Internet + Eduki digitalak ikaskuntzan txertatu + Ikaskuntza digitalerako giroa sortu
Noiz erabili?	Inoiz edo ia inoiz	Oso gutxitan	Erabili batzuetan	Askotan erabili
Zer erabili?	Softwareak	Softwareak eta CD-ROMak Online edukiak Bilatzaileak	Aurrekoak + Eduki digitalak Sarean eskuragarri	Aurrekoak + Eduki digital anitza, norberak sortutako materiala.

			dauden baliabideak	
Zertarako erabili?	Bere ezagutzaren osagarritzat	Osagarritzat, funtzio administratiboentzat, komunikaziorako eta aurkezpenak egiteko	Aurrekoak + ikerketarako, planifikaziorako, koordinaziorako	Aurrekoak+ analisirako, hausnarketarako, indagaziorako, kolaboraziorako, materiala sortzeko
Nola erabili?	Irakaslearen mesederako, bera zentroa izanik.	Irakasleari zuzenduta	Irakasleak eskainita	Irakaslearen laguntzan, ikaslean zentratuta

*Nik egina García, A eta Hernández, A-ren (2013) informazioarekin

Honetaz gain, ikerlan horretan IKT-ak eskolan ezartzeko prozesu osoa aztertzen du urratsez urrats. Horietako bakoitzean irakasle eta profesionalen esku-hartze esparruak eta lanak zehaztuz eta argituz.

Modu honetan, IKT eta eskola edo irakasleen arteko harremana aztertu dutenak asko izan eta izaten ari dira. García A. eta Hernández, A-k (2013) hiru mailatan banatzen dituzte harreman hori; oinarrizkoa, erdi mailakoa eta garatua.

- Oinarrizko maila: erabilera pertsonala, gelan ez erabili ordea. Ezagutza oinarrizkoak ditu, hala nola, internet eta testu prozesadoreak, eta horiek gelan integratzeko lehenengo urratsak eman ditu.
- Erdiko maila: irakasleak badaki gaiaren inguruan, baliabide nahiko kontrolatzen ditu. irakasleen arteko komunikaziorako erabiltzen ditu IKTak , baita baliabide pedagogiko moduan ere.
- Maila garatua: irakaslea gaien aditua da. Teknologia koordinatzen eta kontrolatzen du erabat, bai teknikoki baita pedagogikoki ere. Gainontzeko irakasleei laguntza eskaintzen die.

Gaur egungo irakasleen egoera definitzeko sailkapen hau erabiliko bagenu, oinarrizko mailan daudela esan genezake Apple Classrooms of Tomorrow (1996) elkarteak egindakoa erabiliz gero ordea, adopzio etapan edo zehaztuko genuke. Hau da, irakasleek modu puntualean erabiltzen dituzte teknologia berriak eskolan eta gehienek metodologia tradizional batean oinarrituta egiten dute.

García, A eta Hernández, A-ren ideiekin (2013) jarraitzeko azkeneko urteetan esfortzu ekonomiko izugarriak egin direla esan beharra dago. Baina ez da irakasleek behar zuten formazioarekin lagundu eta ondorioz, egoera ez da espero bezalakoa izan. Zentzu honetan, ez da aski alfabetizazio teknologikoarekin, tresnak didaktikoki erabiltzearen inguruko hezkuntza ere behar da. Horretarako lehenik eta behin galdera batzuk planteatu beharko genituzke:

1. Irakasleak kontziente dira IKT-en integrazioarentzat beharrezkoa den formakuntzaz?

2. Zein formazioaren beharra dago nagusiki? Zer modu edo bide nahiago dituzte hura jasotzeko?
3. Benetan formazioarekiko interesa dauka? Beharrezkoa den esfortzua eta denbora eskaintzeko prest dago?

Galdera horiek erantzuten saiatu diren adituak asko dira eta horiek lortutako informazioarekin aurreko galderen erantzunak honakoak direla esan genezake:

1. Irakasleek nahiko argi dute zer nolako formazioa behar duten eta zein mailatan. Haien eskaera tresna teknologikoen erabileratik haratago doaz formazio didaktikoagoa eskatuz. Hasierako unean erabilera mailako laguntza behar zutela diote, baina oraingo egoera desberdina dela aitortzen dute eta teknologia berriak erabiltzerako orduan estrategiak, jarduera motak, metodologiak e.a. eskatzen dituzte.
2. Irakasleen nahien artean honakoak izango genituzke
 - a. Softwareen erabileraren ingurukoak
 - b. Baliabide telematikoen diseinurako zuzenduta
 - c. Aplikazio multimedialak diseinatzerako bideratutakoa
 - d. Datu baseen eraikuntza eta antolamenduak egiteko
 - e. Multimedia aurkezpenekin lotutakoak
 - f. Testuinguru kolaboratiboak edo kooperaziozkoak sortarazteko formazioa
 - g. Web 2.0ren erabilerak

Hezkuntza hori jasotzeko moduaren inguruan, presentziazko irakaskuntza edota erdi-presentziazkoa nahiago dutela esan beharra dago (online direnak baino).

3. IKT-ak geletan txertatzeko nahiak eta interesak oso altuak direla esan dezakegu. MEC-ek (2011: 197) dioen arabera:

“el profesorado está dispuesto, al menos a nivel de intenciones, a invertir tiempo y esfuerzo en el dominio de las TIC en el contexto de su actividad docente”. Alde honetatik, beharrezkoa da ere administrazioaren aldeko laguntza izatea eta hark bere esku dauden erraztasunak aplikatzea eta honela, irakasleen denbora librea okupatzen duten jarduerak ez izatea.

2. ATAL PRAKTIKOA

Atal honetan Nafarroan 2013-2014.kurtsoan emandako berrikuntzak aztertzen saiatuko gara. Honela Nafarroako Komunitate Erkidegoan hezkuntza alorrean berrikuntzek duten pisua antzematen saiatuko gara ahalik eta modu objektiboenean.

2.1. Helburuak

- Berrikuntzaren gaiaren arduradun nagusiak zeintzuk diren ezagutu
- Komunitate Erkidegoan hezkuntza berrikuntzak bultzatzen diren ala ez jakin
- Bultzatuz gero, hortaz arduratzen diren elkarte guztiak ezagutu
- Nafarroan planteatzen diren proiektu berritzaileen nolakotasunak aztertu
- Berrikuntza proiektuak aurrera eramateko prozesua praktikan nolakoa den ezagutu
- Berrikuntza horien gaiak ezagutu eta alderatu
- Nafarroako Gobernuaren jarrera gaiaren inguruan antzeman
- Nafarroako eskolen eta elkarte desberdinen jarrera berrikuntzen aurrean ezagutu

2.2. Metodologia

Honetarako erabilitako metodologia kualitatiboa izan da; errealitateko egoera ahalik eta hoberen biltzeko helburuarekin. Horrela, teknika desberdinen bidez deskribapenak, esperientziak, iritziak e.a. bezalako informazioa biltzen aritu naiz:

- Hezkuntza Departamentuko web gunea aztertu nuen (2014/06/04: <http://www.educacion.navarra.es/>) bertan, hezkuntza berrikuntzari zuzenduta dagoen ataleko informazioa bilduz.
- Hezkuntza Departamentuko Berrikuntza saileko arduradunarekin bilera bat egin nuen online topatutako informazioa osatzeko eta zenbait zalantza argitzeko.

- Hezkuntza Departamentuko Kalitate saileko arduradunarekin beste bilera bat egin nuen kalitatearen inguruan egiten diren berrikuntzak ezagutzeko asmoz.
- Korreo elektronikoaren bidez aurreko biekin harremanetan jarraituz Hezkuntza Departamentutik eskainitako zenbait txosten aztertu ondoren sortzen zitzaizkidan zalantzak argitzeko (ikus eranskinak 1).
- Sarearen bidez Hezkuntza Departamentutik eskainitako zentroen inguruko datuak bildu eta geroago eskola desberdineko proiektu berritzaileen arduradunekin aurrez-aurre edota telefonoz elkarrizketak izan ditut. Horietako batzuekin email bidezko harremana jarraitu dugu idatziz hitz egindakoaren laburpena eskaintzeko asmoz (ikus eranskinak 2 eta 3).
- Hezkuntza Sistematik kanpo gai honen inguruan lan egiten duten elkarteen inguruko informazioa bildu dut Internet bidez eta haiengana zuzendu naiz (aurrez-aurre, emailez edota telefonoz) beren lan egiteko moduaren eta proiektuen inguruko jakintza zabaltzeko asmoz.

2.3. Nafarroako egoeraren analisisia

Nafarroan Hezkuntza Departamentua da berrikuntza proiektuen gaia antolatzen duena nagusiki. Hemendik bi berrikuntza proposamen onartzen dituzte:

- Berrikuntza proiektuak: kurtso bateko iraupenarekin eta komunitate mailan aurrera eramendutakoak.
- Sare berrikuntzak: hiru kurtso edo gehiagoko iraupenarekin eta komunitate, Estatu edo Europa mailan egindakoak.

2.3.1. Berrikuntza proiektuak

Berrikuntza proiektuei dagokienez, edozein eskolak proiektu baten beharrak somatzen ditu, planifikazioa egiten du eta nahi izanez gero, Hezkuntza Departamentuari aurkezten diote. Urte batez eramango da aurrera proiektu hori, eta amaitzerakoan memoria bat eratu behar dute Hezkuntza

Departamentuari aurkeztua izan baldin bada. (2014/06/04: http://www.navarra.es/home_es/Servicios/ficha/3442/Proyectos-de-innovacion-educativa-en-centros-escolares-de-enseñanzas-no-universitarias)

Proiektua aurkeztua izatekotan, langile edo aditu talde bat erabakita dago epaile edo komisio moduan aritzeko, honela, hauek proiektu guztiak aztertzen dituzte eta aldez aurretik erabakita dauden ebaluazio irizpide batzuen arabera puntuazioak ematen dituzte. Proiektuak maiatza aldera aurkeztu behar dira eta udan zehar puntuazioak argitaratzen dituzte Departamentukoek. Puntuazio horiek 100etik dira eta 60 puntu lortu behar dira gutxienez diru laguntzak jasotzeko. Hezkuntza Departamentuko Berrikuntza saileko zuzendariak emandako informazioaren arabera eraginkortasuna da bilatzen dutena, hau da, ahalik eta gehien aldatzen duen proiektua ahalik eta baliabide gutxienekin. Azkenik, hurrengo maiatza edo ekainean zehar memoriak entregatzeko epeak izaten dira. Modu honetan, orain, 2013-2014. kurtsoan zehar aurrera eramandako proiektuen memoriak aurkezten eta 2014-2015.kurtsoan zehar egin beharreko proiektuak aurkezteko lanak egiten ari dituzte eskolek.

Honen arabera, urtero aukeratutako proiektuen zerrenda bat aurkezten dute. 2013-2014. Kurtsoan izandako emaitzak honako taulan biltzen dira:

Taula 15.Nafarroako proiektuak 2013-2014

Exp.		Título del proyecto	Puntuación
	CATEGORIA A		
9	CP MONTE SAN JULIÁN	La vida es un teatro	84
12	IES BARAÑAIN	ACTIUN (Aprendizaje colaborativo, tecnologías de la información y universidad)	83
18	IESO CORTES	Proyecto Piloto de organización de 2º curso de ESO	81

27	COLEGIO STA. LUISA MARILLAC	La Sonrisa del Monje	81
6	IES MARQUÉS DE VILLENA	Metodologías activas: Aprendizaje por proyectos	80
20	IES RIBERA DEL ARGA (PERALTA)	Proyecto de investigación para bachillerato.	78
5	COLEGIO MARISTAS	Redactar con DEAR: textos descriptivos	75
7	HEGOALDE IKASTOLA	Hezkuntzaren lau ardatz- Cuatro ejes educativos	75
31	IES IRUBIDE	Proyecto Enlace	74
32	IES SAN MIGUEL DE ARALAR I	Mejora del medioambiente, continuación del trabajo del curso 12-13	72
21	IES RIBERA DEL ARGA (PERALTA)	Grupos reducidos y por ámbitos en primer ciclo de ESO	72
38	IESO ATARRABIA (VILLAVA)	Proyectos de innovación en matemáticas	72
36	CP SAN FRANCISCO+ 3 más	Enredados en la ciencia	70
30	IESO BERRIOZAR	Ámbitos en 1º y 2º ESO	70
39	IES PLAZA LA CRUZ	El desarrollo de las Competencias Básicas desde la innovación metodológica y un nuevo modelo tutorial. Propuesta de implantación en 1º ESO en el IES Plaza de la Cruz	70
33	CEE ISTERRIA	Expresarte: una experiencia de colores.	69
19	IESO JOAQUIN ROMERA (MENDAVIA)	Convivencia en igualdad	68
28	COLEGIO STA. LUISA MARILLAC	Investigamos para Mejorar	68
8	ERENTZUN IKASTOLA	Saski bete barazki- La cesta llena de verduras	65
3	IKASTOLA LIZARRA	Fighting hunger worldwide	65
4	COLEGIO MARISTAS	Érase una vez... un cuento	64
34	IESO ATARRABIA (VILLAVA)	Trabajo por proyectos en un aula de 1º de la ESO	64

23	IESO REYNO DE NAVARRA (AZAGRA)	La radio : un medio al servicio de la expresión oral	64
2	IKASTOLA LIZARRA	¿Qué hacer con la ropa que los/as alumnos/as olvidan en el centro?	63
24	SAN MIGUEL DE ARALAR IKASTOLA (ETXARRI ARANAZ)	Herri Garbia, Herri Argia ("pueblo limpio, pueblo inteligente")	63
14	CP BERIAIN	MIS MENSAJES, una comunicación asertiva	62
29	CP XABIER ZUBIRI	Aulas Abiertas	60

	CATEGORIA B		
35	COLEGIO VEDRUNA	Taller de robótica	85
37	COLEGIO EL REDÍN	Robótica educativa	74

***Hezkuntza Departamentutik eskainita**


Hemen aurkitzen ditugun erakunde edo zentroen artean, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH-koak aurki ditzakegu.

Bi kategoría agertzen direla da aipagarri; A orokorra izanik eta B errobotikarekin harremandutakoa, izan ere, kurtso horretan bultzatu nahi zuten gaia errobotika zelako eta hortaz, kategoría berezia eskaini nahi izan zioten.

Ikus daitekeen antzera, IKT-ak, ikasgaien arteko zeharkakotasuna, bizikidetza, ingurunea zaintzea, komunikazioa, ikerketak egitea, konpetentzien garapena, hizkuntzak eta metodologia anitzak jorratzen dituztenak aukeratuak izan dira nagusiki. Honela, Hezkuntza Departamentutik berrikuntza beharrezkotzat jotzen dituztenak horiek direla ondoriozta dezakegu.


Berrikuntza proiektuak aurkezten dituzten eskola motak aztertuz gero, honako datuak aurkitzen ditugu:

- 17 zentro publikok dira eta 12 kontzertatuak




Irudia 1. Zentrozen izaera

- 23 zentro laikoak dira eta 6 erlijiosoak



Irudia 2. Zentrozen konfesionaltasuna

- 13 instituto, 11 eskola, 4 ikastola eta 1 Hezkuntza Berezikoa



Irudia 3. Zentro motak

Orain, puntuazio altuenak lortu dituzten proiektuetan sakonduko dugu, Departamentutik zer berrikuntza motak bultzatzen diren ezagutzeko:

- Vedruna eskolaren “Errobotika Tailerra” (85puntu B kategorian):
Proiektu honek aurreko kurtsoan egindako errobotikaren inguruko beste proiektu bat du oinarri. DBHko 1. mailan burutu da eta Moodle, BYOB eta Lego Mindstorm izeneko tresna batzuk erabiliz aurrera eraman da. Errobotikaren inguruko ezagutzak bereganatzeaz gain, harremanak eta Nafarroako geografia eta kultura lantzen dira besteen artean.
- Monte San Julian eskola publikoaren “La vida es un teatro” proiektua (84puntu A Kategorian):
Proiektu hau eskolan somatu ziren beharretatik sortu zen; Haur Hezkuntzako ingelerako irakaslearen aldetik. Hasiera batean, irakurketa eta idazketa bultzatzeko helburuarekin hasi zen, baina geroago adimen emozionala, IKTen erabilera, konpetentzien bidezko lan egitea, gorputz adierazpena, dramatizazioa e.a. bezalako edukiekin lotu zen.
Eskolako liburutegia erabaki zuten proiektua aurrera eramateko txoko nagusia bezalaxe, honela, hura berreraiki eta dotoretzeari ekin zioten; zirko itxura eskainiz (ikus 4 eta 5 irudiak)
Ikasleen familiak proiektuan integratzea garrantzitsua izan zitekeela bururatu zitzairen eta hala egin zuten. Guzti honekin, eskolako gela guztietan aurrera eraman dute proiektua urte oso batean zehar eta oso emaitza onak izan dituztela ziurtatzen dute.



Irudia 4. Liburutegiaren pareta



Irudia 5. Liburutegiko apaindurak

Yoga, antzerkia, rol playing (gaztelerazko “rol en vivo”), erlaxazioa, e.a. bezalako jarduerak egin izan dituzte eta bitartean ikasleek IKT-en bidez grabazioak eta argazkiak egin dituzte geroago sarera igotzeko. Honetarako irakasleek IKT-en erabileran sakontzeko formakuntza jaso dute.

Aipagarria dugu ere, 2013-2014. kurtsora arte beti, egindako deialdi guztietan, diru laguntzak jaso izan dituztela aukeratuak suertatu diren proiektu horiek, baina 2013-2014.kurtsorako aurrekontuak ez zirela iritsi. Honela, agertutako zentroek ez zuten inolako laguntza ekonomiko ez materialik jaso, printzipioz. Hala ere, aintzat hartzea edo errekonozimendua jasotzea eta proiektuaren balioaren egiaztatzea jasotzen dutela adierazi didate Departamentukoek. Aipatzekoa da ere, gaiaren inguruan sakontze lana egiten ari naizela eta zenbait eskolek, egoera horren aurrean, Hezkuntza Departamentuari kexa egin ziotela komentatu didate eta horren ondorioz diru laguntza txikia jaso zutela.

2014-2015 kurtsorako ordea, 1000€-tako aurrekontua dago gai honi zuzenduta. Orain proiektuen memorien bilketa egiten ari dira aurretik esan bezala, hortaz, ez dira oraindik emaitzak ezagutzen.

Sariei dagokienez, urtearen eta aurrekontuen arabera banatzen direla azaldu beharra dago. Duela zenbait urtera arte eskaintzen ziren, baina orain ez dira normalean ematen. Honela, proiektua oso ona bezala kontsideratzekotan, saria zuzentzen ahal zaio, baina ez da ekonomikoa izanen; Espainia eta Amerika mailako proiektuaren esposizioa edo aurkezpena egiteko aukera emango zaio adibidez.

2.3.2. *Berrikuntza sareak*

Aurretik, proiektuen sareak ere zeudela komentatu dugu. Zehatzago hitz egiteko lau daude Nafarroan Hezkuntza Departamentuko informazioaren arabera:

- Eskola osasuntsu edo osasungarriak (red de escuelas saludables)
- Elkartasunaren aldeko sarea (red de escuelas solidarias)
- Eskola iraunkorren sarea (red de escuelas sostenibles)

- Zientzia eta teknologian berrikuntzak egiteko sarea (red de innovación en ciencia y tecnología)

Departamentuan azaldutako moduan, sare hauetako bakoitzaren funtzionamendua erabat desberdina da, baina denak ezaugarri komun batzuk dituzte:

- Eskola anitzak parte hartzen dute aldi berean, elkarlanean aritzen dira helburu komunarekin.
- Hiru urteko iraupena dute gutxienez

Sare hauetako batzuk Nafarroa mailan egiten dira, beste batzuk ordea, Estatu mailan eta azkenik, beste batzuk Europa mailan.


2.3.2.1. *Eskola osasungarrien sarea*

SHE (Schools for Health in Europe Network) izenaren pean ezagutzen da. Europa mailako eskola multzo baten lan egiteko plataforma moduko bat da. Nationaal Instituut voor Gezondheidsbevordering en Ziektepreventie-k koordinazioa ahalbidetzen du (NIGZ) Europa mailan. Espainia mailan ordea, IFIIE (Instituto de Formación del Profesorado, Investigación e Innovación Educativa edota Irakasleen Prestakuntzarako, Ikerketarako eta Hezkuntza Berrikuntzarako Institutua) da arduraduna sarearen web gunean topatutako informazioaren arabera. Heskuntza Departamentuko web gunean agertzen denaren arabera "Una "escuela promotora de salud" es aquella en la que se lleva a cabo un plan estructurado y sistemático en beneficio de la salud y el bienestar de todo el alumnado y del personal docente y no docente." Honela, erabat zehaztuta eta antolatuta dagoen planifikazioa egiten dute, eta hura aurrera eramaten duten eskolak eskola osasungarriak dira.

Osasunaren gaitan egin nahi duten hezkuntzaren helburuak hiru dira Espainiako Gobernuak argitaratutako Eskola Osasungarrien txostenaren arabera (ikus eranskinak 4)

- Ohitura osasungarriak irakastea da, eta horrela, arrisku faktoreak baztertzen lortzea; eskola osasuntsua sortuz.
- Ikerketa bultzatu eta bermatu.
- Jarduera eta esperientzia egokiak konpartitzea eta zabaltzea.

Azken urteetan nahiko garrantzitsua bihurtu da sare hau, herrialde anitzetako eskola ugarik parte hartzen dute:



Irudia 6. Eskola osasungarriak Europan zehar

Espanian 160 eskola parte hartzen dute orain, zazpi Komunitate Erkidego desberdinetakoak. Nafarroan partaide ugari dauzka hurrengo taulan ikusten den antzera:

Taula 16. Eskola osasungarrien sareko partaideak

ZENTROAK	PROIEKTUAREN IZENBURUA
I.E.S. Ribera del Arga. Peralta	Educación y Promoción de la Salud. “Tu salud si que vale”
I.E.S. Eunáte. Pamplona	“Hacia un Centro Educativo Saludable en teoría y en la práctica”.

I.E.S.Marqués de Villena. Marcilla.	“Promoción de la Salud”.
Centro de FP M ^a Inmaculada. Pamplona	“Escuela saludable”
I.E.S.Ega. San Adrián	Alimentación Saludable. “Hábitos de vida saludable: consumo responsable”
CEIP Iturrama Pamplona.	Prevención de la obesidad infantil.
I.E.S. Navarro Villoslada. Pamplona	Bienestar y salud emocional. “Las relaciones con el entorno: el ocio en la adolescencia”
I.T.C. Cuatrovientos. Pamplona	“Cuatrovientos SSS”
IESO Joaquín Romera Mendavia	“Actividades educativas para la Promoción de la Salud”.
CEE El Molino. Pamplona	“Educación para la salud por la calidad de vida de las personas con discapacidad”.
CEIP Angel Martínez Baigorri. Lodosa.	“Desarrollo de actitudes saludables, capacidad de toma de decisiones y resolución positiva de conflictos.”
CEIP Virgen de la Cerca. Andosilla.	“Aprendiendo a relacionarnos”.
CE Santamaría la Real de Sarriguren. Egües	Promoción de la Salud. “Con motivación se hace mejor la prevención”
CEIP Pitillas	“Muévete hacia una alimentación saludable”.

IES Toki Ona. Bera	Toki Ona – SHE “Convivencia saludable”
CEE Isterria. Ibero	“La salud está en tus manos”
CEIP “Monte San Julián”. Tudela	“Convivir saludablemente: por la práctica deportiva, la actividad física y la salud corporal y mental”
CEIP Azpilagaña. Pamplona	“Salud tiene cinco letras”
CPEE Andrés Muñoz Garde. Pamplona	“La educación afectivo-sexual de las personas con discapacidad psíquica”
Colegio Calasanz. Pamplona	“Educación para una vida saludable”
IES Pedro Moret Irubide. Pamplona	“Promoviendo la salud”
IES Pedro de Atarrabia. Villava- Atarrabia	“Integración en la red de escuelas para la salud de Europa. Pedro de Atarrabia: Centro saludable
IESO Julian Gayarre. Roncal	Red de escuelas para la Salud en Europa “Educando en buenos hábitos de salud”
Colegio Compañía de María. Tudela	“Hábitos saludables en educación Infantil y primaria”
IESO Elortzibar. Noain	“Entorno saludable”
CPEIP Alfonso X el Sabio. San Adrián	“La Estrella de la Salud”
Escuela Politécnica Navarra	“Formando agentes de salud”

CPEIP Cerro de la Cruz. Cortes	“Mordiscos de salud”
Colegio Hijas de Jesús. Pamplona	“El juego: Un eje conductor hacia la salud”
Ikastola Hegoalde. Iruña/Pamplona	“Osasuntsu Hezi, Osasuntsu Bizi”

*Hezkuntza Departamentuan emandako datuekin nik egina

Eskola edo zentro horietako bakoitzak proiektu bat prestatu eta burutzen du Europatik zehaztutako ildo bati jarraiki, hau da, arau batzuk errespetatuz baina testuingurura egokitzeko aukerarekin. Honela, zentro bakoitzak bere beharrak hautematen ditu eta osasuna lantzeko plangintza bat egiten du. Horien bidez gai ugari lantzen dituzte sarearen web gunean dagoen beren lan egiteko planifikazioan azaltzen duten modura:

- Harreman osasuntsuak
- Jarrera osasuntsuak
- Ingurumenaren osasuna eta zainketa
- Elikagai osasuntsuak
- Autoestimua
- Arazoak ebazteko estrategiak
- Sexualitatea
- Erlaxazioa eta meditazioa
- Bakea eta errespetua
- Kultur aniztasuna
- Drogak eta menpekotasunak
- Publizitatearekiko kritikotasuna
- E.a.

Hauek dira lantzen diren gai nagusiak, beste batzuk agertzen dituzten arren. Honela, eskola bakoitzak bere baliabide eta aukeren arabera jarduerak prestatu izan ditu, proiektu baten izenpean bildu eta aurrera eraman ditu zenbait kurtsotan zehar. Modu honetan, zenbait eskoletarako eduki horiek

lantzea izango da berritzailea dena, beste batzuentzat horiek barneratzeko eta lantzeko erabilitako metodologiak, beste batzuentzat baliabideak...

CEIP Monte San Juliánekoek egindako jarduera berritzaileen artean asteko hiru egunetako errekreoetan fruta jatea daukagu.

Honela, eskola edo zentro bakoitzak bere beharren arabera proiektua prestatu eta aurrera eramango du.

2.3.2.2. *Elkartasunaren aldeko sarea*

Sare honen bidez, garapenarentzako hezkuntza (educación para el desarrollo) lortu nahi dutela diote Departamentuko web gunetik, hau da, munduan zehar dauden desberdintasunen kontzientzia hartzea eta horren arabera praktikak aurrera eramatean datza. Modu zehatzean hitz egiteko, Departamentutik web gunean honela definitzen dutela da aipagarri:

“La Educación para el Desarrollo es un proceso educativo que debe llevar a tomar conciencia de las desigualdades planetarias existentes en el reparto de la riqueza y del poder, de sus causas y consecuencias y que busca favorecer actitudes solidarias y de compromiso social con un mundo más justo.” (2014/06/04: <http://www.educacion.navarra.es/>)

Hau aurrera eramateko Gobernuak plan edo estrategia batzuk zehaztu zituen eta “Estrategia de Educación para el Desarrollo” izenaren pean argitaratu zuen 2009. urtean. Estrategia horiek aurrera eraman nahi dituzten zentroek sare honen partaide izatera pasako dira.

Parte hartzaile guztiek ONG desberdinen formazioa jasotzea ezinbestekoa izaten dute sare honen partaide izateko, hortaz, eskola bakoitzaren errealitatearen arabera laguntza indibidualizatuta jasoko dute irakasleek.


Modu honetan, sare honetako lana aurrera eramateko prozesua nahiko luzea dela esan beharra dago. Fase desberdinetan banatu dezakegu, guztien bete behararekin, noski:

1. Fasean zenbait behar somatzen dira zentroan, horiek aztertu eta sare honen bidez ebazten edo asetzen ahal direla ikusten da. Hortaz, sarearen partaide izateko inskripzioa egiten da. Honetarako,

ezinbestekoa da proiektua aurrera eraman behar duen taldea eratuta izatea.

2. Fasean sarearen inguruko informazio orokorra jasotzen da, baita aurretik aipatutako ONGen formazio hori ere. Esan bezala, eskola bakoitzeko errealitatea aztertu eta horren arabera prestakuntza eskaintzen diete parte hartzaileei. 10 orduko formazioa jasotzea derrigorrezkoa da.
3. Fasean proiektua aurrera eramateko erabili beharreko materialak, jarduerak, metodologiak... zehazten dira. Nolabait planifikazioa egiten da.
4. Fasean proiektua martxan jartzen da, praktikara eramaten da aurretik planifikatutakoa.
5. Fasean egindako lana memoria batean biltzen da eta haren inguruko hausnarketa batekin biltzen da. Burututako proiektua ebaluatzen da nolabait hobetzeko proposamenak eginez. (2014/06/04: http://www.congnavarra.org/v1/IMG/MEMORIA-ESCUELAS-SOLIDARIDAD_1_.pdf)
6. Fasean, amaitzeko, sarearen partaide diren beste zentroekin elkartzea ematen da. Honela, esperientziak konpartitzen dira, akatsak ez errepikatzeko eta indarguneak ikasteko.

Fase hauek honela irudikatu daitezke:



Irudia 7: Sarean aritzeko prozesua

Proiektu honetan Nafarroako eskola desberdinek parte hartzen dute:

Taula 17. Elkartasunaren aldeko sarearen partaideak

ZENTROA	ONG laguntzailea
CEIP Murieta	Paz y Solidaridad
IES Iturrama	ACPP
CEI Ribaforada	ALBOAN
CEI Murchante	ALBOAN
CEIP Añobe	ACPP
IES Zizur	Alboan
CEIP El Casellar Villafranca	ACPP
IES Pedro de Ursua	INTERMON/Aisa
CE San Ignacio de Pamplona	Alboan
CEIP Monte San Julián de Tudela	Alboan
CEIP Compañía de María de Tudela	Alboan
CE San Francisco Javier de Tudela	Alboan
CEIP Elvira España de Tudela	Alboan
CE Santa Teresa de Jesús de Pamplona	Unicef
CE Santa Catalina	Unicef
CEI Garabatos de Castejón	Unicef, Alboan

CEIP Buztintxuri	ACPP
CEIP 2 de mayo de Castejón	Unicef, Alboan
IES Navarro Villoslada de Pamplona	OCSI
ITC Cuatro Vientos	CONGDN
CEIP San Fausto Ancín	Paz y Solidaridad
CEIP Francisco Arbeloa Azagra	ACH
CEIP Sarriguren	SED
Santa M ^a Real Maristas	SED
Enfermeria	Medicos del Mundo
Hijas de Jesús	ALboan
CEIP Santa Bárbara Monreal	Paz y Solidaridad
IES Carcastillo	ACPP
Salesianos	Intermon
Intercentro Economía: Zizur, Marcilla Irubide, NS:del Huerto	REAS/Intermon

*Hezkuntza Departamentuan eskainitako datuekin nik egina

2.3.2.3. *ESKOLA IRAUNKORRAREN SAREA*

Azkenengo urteetan ingurumenaren zainketari garrantzi handia ematen hasi zaio. Eskola aunitzek lan horri ekin diote eta horiek guztiak biltzen dituen sarea dugu hau.

Hezkuntza Departamentuak CRANA (Centro de Recursos Ambientales de Navarra) izeneko zentroa aukeratu du azken urteetan sare honetako partaideen formazioa bideratzeko (orain desagertu da) eta zentro desberdinen proiektuen

aurrera eramate egokia ziurtatzeko asmoz. Modu honetan, zentro honek proiektu honetarako beharrezkoak diren hiru ardatz nagusien inguruko heziketa eskaintzen die partaideei. Hiru ardatz hauek, Departamentuak bere web gunean dioen antzera, ondorengoak dira:

- Zentroen plan energetikoen planifikazioa
- Hondakinekin zer egin
- Ura eta ibaien kudeaketa

Ondoriozta daiteke horiek direla ingurumenaren zainketaren esparru honetan Gobernutik bultzatu nahi diren gaiak.

Nafarroako zentro ugariak parte hartzen dute, sareen artean partaidetza handiena duena da zalantzarik gabe jarraian ikus daitekeen modura:

Taula 18. Eskola iraunkorren sareko partaideak

TOKIA	ZENTROA	GAIA
ALSASUA	IES SAN MIGUEL DE ARALAR	URA, ENERGIA, HONDAKINAK
ALSASUA	COLEGIO ASAGRADO CORAZON	URA, ENERGIA, HONDAKINAK
ARTAJONA	CP URRACA REINA	HONDAKINAK
AOIZ	IES AOIZ	URA
BARAÑAIN	BARAÑAINGO B.I. ALAITZ	URA
BERA	IES BERA TOKI-ONA	ENERGIA
BERA	RICARDO BAROJA IKASTETXE PUBLIKOA	HONDAKINAK
BERBINZANA	CP BERBINZANA	HONDAKINAK
BERRIROZAR	IES BERRIOZAR	HONDAKINAK
BUÑUEL	CEIP STA ANA	URA
BURLADA	IES ASKATASUNA	URA ETA ENERGIA
BURLADA	IES IBAIALDE F.P.	ENERGIA
CAPARROSO	VIRGEN DEL SOTO	ENERGIA
CINTRUENIGO	LA PAZ	ENERGIA
CORELLA	ESCUELA DE ARTE DE CORELLA	ENERGIA
CORELLA	JOSE LUIS ARRESE	ENERGIA
ELIZONDO	IKASTOLA BAZTAN	URA
ESTELLA	CE NUESTRA SEÑORA DEL PUY	URA
ESTELLA	IES POLITECNICO TIERRA ESTELLA	URA

ESTELLA	IES TIERRA ESTELLA	URA
GARRALDA	NTRA. SRA. DE ORREAGA	ENERGIA ETA HONDAKINAK
IRURTZUN	CEIP ATAKINDOA	HONDAKINAK
JAUNTSARAS	CP JAUNTSARAS	HONDAKINAK
LARRAGA	CP SAN MIGUEL	URA
LEITZA	CP OTEIZA	URA
LODOSA	INSTITUTO PABLO SARASATE	ENERGIA
LUMBIER	CEIP SAN JUAN	URA ETA HONDAKINAK
MARCILLA	IES MARQUES DE VILLENA	URA
MENDIGORRIA	CP MENDIGORRIA	URA
MIRANDA DE ARGA	CP. SAN BENITO	URA
NOAIN	CPEIP SAN MIGUEL	ENERGIA ETA HONDAKINAK
